

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

2026ko ekainak 5 · 1399 zenbakia



# BASOAK INOIZ BAINO BIZIAGO

# MÓ 189€

erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



## MULTIÓPTICAS

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2.  
EIBAR



hitzordua  
eskatu



 **Neinor** HOMES

**ARRATE HOMES**

# Errealitatea da

**Bisitatu pisu pilotua** eta estreinatu etxebizitza hilabete honetan bertan



Gourmet aretoa | Gimnasioa

**APARKALEKUAK ESKURAGARRI**

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**



**BERBETAN JAIALDIA**

**ARIMA DISKO FESTA - DJ MITXEL**  
Ekainak 11, osteguna 17:30 Errebaleen

**eta kitto!**  
euskara elkarteoa

**EIBAR** **GIPUZKOA**

# Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



[www.etakitto.eu](http://www.etakitto.eu)



Murrategi auzoko bizilagunak "abandonatuta eta nazkatuta" sentitzen dira. Auzoak bizi duen egoeraz kezu dira eta hori konpontzeko 2023an esleitutako 3 milioiak euroak non dauden galdetzen dute, horien premia dute-eta. Horrela, Behetarrak elkarteak martxan da auzokoen nahiak bete daitezen.

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

#### ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

#### JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Iruene Jaio

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

## Eskutitzak



### Sokamuturra eta gaztiak

Aurtengo sanjuanetarako sokamuturra antolatu omen du udalak. Alkatearen esanetan gazteen eskakizun bati erantzunez egongo omen da zezena Untzaga plazan goizean goizetik. Eta hiru aldiz gainera. Ze polita gazteen eskakizunei erantzutea, ze zuzena eta eredugarria. Herritarrei entzun eta erantzutea demokrazia ariketa ederra da.

Ez dakit ze gazte izango diren eskaera hori egin dutenak, baldin badira, jakina. Baina badakit beste gauza mordo bat ere eskatzen dituztela Eibarko gazteek eta ez zaiela kasurik ere egiten. Ez entzun eta ez erantzun.

Gazteek etxebizitzak eskatzen dituzte, besteak beste, eta hor daude Bittor Sarasketakoak ez dakit nik noiztik geldirik. Horra bizitzera joateko asmotan izena eman zuten gazteak iada zahartzen hasita daude.

Gazteek gaztetxe bat ere eskatzen dute eta bota berri dituzte zuten horretatik.

Eta hauek holaxe boteprontuan, burura etorri zaizkidan gauzatxo bi baino ez dira.

Eta jaietara bueltatuz, gazteek txosnagune duin bat eskatzen dute aspalditik baina badirudi horretarako belarririk ez duela udalak. Muuuuuuuka hasi beharko gara beste jai eredu bat nahiko genukeen eibartarrak, igual horrela...

Enpin... Gora jaixak eta Eibarko gaztiak. Badago zeregiña.

**Edurne San Martin**

## Hortik esanak



Gudu-zelaian, lokaztuta, ika-mika politikoan sartuta dago euskara azken hilabete luzeetan. Administrazioiko hizkuntza-eskakizunei buruzko aferak agerian utzi du hizkuntza-politikari buruzko talka, azken urteetan leunduago zirudiena. Tentuz aztertzeakoak dira liskar horren ertzak: kaleko euskaldun euskaltzaleen artean zer eragin du liskar honek guztiak? Eta batez besteko erdaldunen begietara? Euskarara ekarri nahi ditugun etorri berriek nola bizi dute hau? Argudio faltsu asko baitago oinarrian, eta bihozkada handiak. Eta eztabaida egoki gutxi.

Funtsezko abiapuntua: herritarrek eskubidea dute Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoekin euskaraz edo gaztelaniaz aritzeko, eta administrazioak bermatu egin behar du aukera hori. Erkidego osoan: ez dago eskubideen zonifikaziorik. Abiapuntu horrekin lotuta, bigarren zimendua: eztabaida ez da langile euskaldunak vs langile erdaldunak, baizik eta langile elebidunak vs elebakarrak. Bi hizkuntza ofizialak dakizkitenak, edo bat dakitenak. Hots, herritar guztiei zerbitzu emateko gai direnak, edo batzuei emateko gai direnak. Hori baita funtsezko aztergaia: gaitasuna. Enplegu publikoko sarbidean funtsezko printzipioa da.

**Garikoitz Goikoetxea (BERRIA)**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**POTOLO.** → Gizonezko lodia, sendoa. “Eskolako maixua izan arren, potolo-potolua dago”.

**POTROZORRI.** → Pubiseko zorria. Gaztelera *‘ladilla’*.

“Kartzelan dana zan arkakuso, potrozorri eta laba-txirtxilla”.

Petrala, gogaikarria. “Egon hadi ixillik, potrozorri hori!”

# 1965

## Haurrak Untzagan sanjuanak ospatzen

Argazkiko irudi bera berriz ikusteko egun gutxi batzuk baino ez dira falta. Argazkiak argi erakusten duenez, garai hartako haurrak ere erraldoizale amorratuak ziren.

FOTOPLAZAOLA



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 5</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>ZAPATUA 6</b>
<b>EGUNEZ   Mendiñueta</b> (Urkizu, 6)
<b>DOMEKA 7</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 8</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>MARTITZENA 9</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUAZTENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>EGUENA 11</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 12</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Ziriako Agirre, 4)

**GAUEZ BETI**, 2026an,  
**Elordza** (Juan Gisasola, 18)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Fernando Santin Jimenez**. 77 urte. 2026-05-26.
- **Andoni Diaz de Mendibil Amado**. 48 urte. 2026-05-28.
- **Jose Ramon Iriarte Loiola**. 63 urte. 2026-05-28.
- **Nikasia Aranbarri Etxaniz**. 91 urte. 2026-05-28.
- **Manuel Azkue Fernandez**. 97 urte. 2026-05-29.
- **Francisco Perez Dieguez**. 78 urte. 2026-05-30.
- **Marina Vispo Vila**. 86 urte. 2026-05-30.
- **Lujan Ortega Diez**. 15 urte. 2026-06-01.
- **Maribel Rozadilla Cabanzone**. 79 urte. 2026-06-02.



## Bost foruzain hil dira AP-8an, Elgoibar eta Maltzaga artean izandako istripu larrian

**S.H.** Bost foruzain hil dira aste honetan, martitzen goizean AP-8 autobidean, Elgoibar parean, AP-8 eta AP-1 lotzen dituen Maltzagako lotunean izandako trafiko istripu larrian. Ezbeharrak 09:15 aldera gertatu zen, Nafarroatik zetorren Foruzaingo ibilgailu bat Iurretan Foruzaingo ibilgailu batzuk egitera zihoanean. Hildako bostak istiluen aurkako brigadako kideak ziren, eta 35 eta 56 urte artean zituzten.

Egunean bertan Ertzaintzak azaldutakoaren arabera, oraindik argitu gabeko arrazoiengatik gertatu da istripua. Hala ere, lekukoen

bidez jakin ahal izan denez, Foruzainen furgonetak erdibitzailea jo eta errepidearen erdian geratu zen. Diotenez, kamioiak ezin izan zuen talka saihestu eta, furgoneta aurretik eraman zuen.

Talkaren ondorioz, furgonetako bost bidaiariak bertan hil ziren. Kamioiaren gidaria, berriz, helikopteroz eraman zuten ospitalera, zaurituta. Larrialdi zerbitzu ugari aritu ziren lanean: Ertzaintza, bi anbulantzia medikalizatu, eta Azpeitia eta Eibarko suhiltzaileen hainbat ibilgailu bertaratu ziren, erreskate lanetara.

## Eibarko Dendarien Elkartek eta Udalak bonu-txartelen kanpaina berria abiatu dute

**S.H.** Eibarko Dendarien Elkartek, Eibarko Udalarekin lankidetzan, bonu-txartelen kanpaina abiatu zuen martitzenean. Merkataritza eta ileapaindegi/estetika arloetan %20ko deskontua eskainiko dute bonuek, eta [www.erosieibarren.eus](http://www.erosieibarren.eus) webgunean erosi daitezke. Kon-

tsumitzaileek 40 euro ordainduko dituzte, baina bonuak 50 euroko gastua egiteko aukera emango diete. Guztira 700 bonu ipiniko dira eskuragarri. Ekainaren 20ra arte iraungo du kanpainak, eta erosketak ekainaren 2tik 18ra egin ahal izango dira.



## Bali eta Ipar zentroen 5. urteurrena ospatzeko egitarau zabala

**S.H.** Bali gimnasioak eta Ipar skate zentroak herritarrei irekitako kirol eta bestelako jardueraz osatutako egitaraua antolatu dute biharko, bosgarren urteurrena ospatzeko: egitarauak skatea, rollerra, musika eta festa-giroa uztartuko ditu. Goizean Bali Games lehiaketa izango da protagonista, 10:00etatik 13:00etara, Bali gimnasioan; eta, arratsaldean, Ipar izango da berriro ere kirol urbanoen topagune, eta 16:00etatik 17:30era skatea eta roller park-a irekiko dira. Ondoren, 17:30etik 19:30era, skate eta roller erakustaldia egingo da, kirolari eta zaleen parte-hartzearekin.



## Gaztetxiaren agerraldia gaur 19:00etan Untzagan

**S.H.** Eibarko Gaztetxiaren hustuketa dela eta, gaur 19:00etan prentsaurrekoa emango dute Gazte Asanbladako kideek, Untzagan. Gaur egungo egoera zein den eta aurrera begirako asmoen berri emango dute, besteak beste, eta gonbidapen irekia egin dute.



## Unibertsitatera sartzeko proben kontra mobilizatu dira ikasleak

**S.H.** Martitzenean hasi ziren Baxilerreko bigarren urteko ikasleentzat Unibertsitatera Sartzeko Probak (USAP), eta probarekin ados ez dauden ikasle talde eta plataformek mobilizazioak egin dituzte campus ezberdinetan, baita Eibarkoan ere. Ikama ikasle antolakundeak martitzenean (ekainak 2) egin zuen Selektibitatearen aurkako elkarretaratzea Euskal Herriko Unibertsitatearen Eibarko campusean, Eibarko Ingeniaritza Eskolaren atarian, “FCK SELE!” lelopean.

Antolakundearen arabera, probak ikasleen hezkuntza prozesua

**Probak ikasleen arteko lehia eta indibidualismoa sustatzen dituela ere salatu dute**

baldintzatzen du, eta etorkizun akademikoan eragin handiegia du. Bestalde, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak elkartasun argaz-

kia egin zuen jarraian, “Euskaraz bizitzeko, azterketak euskaraz!” lelopean, azterketak euskaraz egiteko debekua salatu eta desobediencia eginen ari direnei babesa adierazteko.

Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS), berriz, eguaztenean egin zuen protesta Eibarko Ingeniaritza Eskolan, “Selektibitateari sua!” lemapean. IASetik diotenez, proba “filtro sozialerako tresna” da, eta baliabide ekonomiko gutxiago dituzten ikasleen aukerak mugatzen ditu. Probak ikasleen arteko lehia eta indibidualismoa sustatzen dituela ere salatu dute.

**Izadi**  
LORADENDA  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*entzarguak etxera*

**ek!**

Zure publizitatea herriko aldirian  
**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



## Eskola Politiko Feministen Lehen Topaketa egingo da bihar goizean Errebalen

**S.H.** Bihar (ekainak 6) egingo da Euskal Herria – Guatemala Eskola Politiko Feministen I. Topaketa, 11:00etatik 15:00etara Errebalen. Eibar-Ermuko Talde Motorrak eta Entreamigos-Lagun Artean elkarteak antolatu dute jardunaldia eta, azaldu dutenez, “topaketa hau bost urte baino gehiagotan Eskola Politiko Feministetako hainbat eragilerekin batera egindako lankidetzaz-prozesuaren emaitza da. Kulturarteko trukea, hausnarketa eta elkarrizketa kolektiboa sustatzeko espazio bat sortzea du

helburu”. Parte-hartzaileen artean Neolina Pablo Salo, *T'ijob'al: Jalöjji kasleman ixoqi* Hezkuntza Politikorako Eskolako partaide den Solola komunitateko emakume indigena, eta Sabina Cael Vicente, Guatemalako hegoaldeko kostaldeko lurraldearen defendatzailea daude. Mahainguruaz gain, eskuarte artistikoak, informazio guneak, artisau azoka, kalejira eta herri bazkaria ere izango dira. Informazio gehiago Entreamigos Lagun Artean elkartearen sare sozialan.

## Urriaren 23an ospatuko du 50. urteurrena Elgoibarko Arreiturre institutuak

**S.H.** Elgoibarko Arreiturre Institutuko zuzendaritzak aditzera eman duenez, ikastetxearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo dute urriaren 23an, 11:00etan, Elgoibarko herri antzokian: “50 urte hauetan (1976-2026) ikastetxe honetan partaide izan diren irakasle, guraso zein ikasle guztiak zuzenean gonbitatu ezin ditugunez, lerro hauen bitartez jakinaren gainean jarri nahi ditugu”. Arduradunekin harremanetan jartzeko, idazkaria@elgoibarbhi.eus helbidera idatzi daiteke.



## Itxi dute Bittor Sarasketa kalean aldi baterako zabaldu zuten aparkalekua

**S.H.** Bittor Sarasketa kalean aldi baterako irekita egon den aparkalekua itxi dute, bertan etxebizitzak eraikitzeko asmoa dago eta. Eibarko Udalak jakinarazi duenez, orubearen jabeek Udalarari aldi baterako eta doan utzitako espazioa da. Atzo itxi zuten arte, 2020tik darama aldi baterako aparkalekuak erabilgarri, Errebal berrurbanizatzeko obren

eraginez galdutako plazak konpentsatzeko. Bestalde, Eibarko Udalak gogorarazi du herriko aparkaleku beharrari erantzuteko lanean jarraitzen duela. Horrela, plaza berriak sortzeko proiektuak ari dira gartzten Larrañaga y Elorza eraikinean, baita Ubitxa-Urki aldean ere, herriko mugikortasuna eta aparkaleku-ekaintza hobetzeko helburuarekin.

# Asteburu osoa beteko du Urkiko jaiak ospatzeko egitarauak

Asteburu honetan, ekainaren 5etik 7ra bitartean, ospatuko dira Urki auzoko jaiak, eta aste honetan aurkeztu dute aurtengo jaietarako antolatu duten egitaraua jai-batzordeko kideek, Jon Iraola alkatearekin eta Patxi Lejardi Jaietako zinegotziarekin batera.

SILBIA HERNANDEZ

Gaur (barixakua) hasiko dira festak, 19:00etan botako duten txupinazoarekin. Urkipe gastronomia elkarteak aurtun 50 urte betetzen dituela-eta, aurtengo jaiak hasteko “ohorea” elkarte horretako kideei ematea erabaki dute auzokideek, horrela, bide batez, elkarrearen mende erdiko ibilbidea ospatzeko. Jarraian, 19:00etatik 21:00etara, karaoke mugikorra egingo da Mirenekin, Urki auzoko kale eta tabernetan zehar; 19:15ean Koa dantza-taldeak emanaldia eskainiko du, eszenatoki nagusian. Eta gauean, 22:00etatik aurrera, LordWitch, Rythmachin eta Urkari taldeen kontzertuek emango diote amaiera jaietako lehen egunari.

Bihar zapatua 10:30ean hasiko da eguna, txikikrosaren dortsal-banaketarekin; kategoriak 2-6 urte (150 metro), 7-9 urte (750 metro) eta 10-12 urte (1250 metro) bitartekoak izango dira, eta 11:00etan hasiko da lasterketa, Urki Kurutzekuatik abiatuta. Txikikrosa amaitu eta, jarraian, “auzoko haur gehienak bertan egongo direla aprobetxatuta”, herri-kirolak egingo dituzte. Urtero oso harrera ona izaten duen paella-lehiaketa, berriz, 12:00etan hasiko da, Nuevo tabernaren atzeko aldean (euria eginez gero, eskolako patio estalian egingo lukete). Jai-batzordeko kideek esan dutenez, mahaia ipiniko dituzte, “animatzen diren guztiak paella bertan elkarrekin jan ahal izateko eta, horrela, auzokideen arteko hartu-emanak sustatzeko”.

## Dinbi Bandaren batukada eta Estopaos

Arratsalderako ere hainbat jarduera antolatu dituzte: 17:00etan igel-toka lehiaketa jokatu da, Rioja tabernako parkean, eta, ordu berean, baina Arrateko



Urkiko jai-batzordea iaz berriro zen eta, aurtun ere, talde horrek antolatu ditu astebururako jarduerak. Hala ere, jaietan beste auzokide batzuen laguntza izaten dutela diote. SILBIA HERNANDEZ

## Gaur, 19:00etan, botako dute jaietako hasiera emango dien txupinazoa

Andra Mari ikastetxean, haurrentzako jolasgunea eta txokolate-jana egongo dira. Eta aurtun txarangarik egongo ez bada ere, auzoko kaleak ederki girotuko dituzte, 19:30ean hasiko den Dinbi Bandaren batu-kadarekin. Eta, eguna biribiltzeko, Estopa taldeari omenaldia egiten dion Estopaos taldearen kontzertua hasiko da 23:00etan.

Jaiak domekan, Galdaramiñoko igoerarekin batera amaituko dira: 09:30ean irtengo da lasterketa, Unbetik, eta sari-banaketa 13:00etan egingo dute, eta orduan egingo da, jaietarako saldu dituzten rifen zozketa ere.

# EUSKAL JAJIA



Eibarko 61. Euskal Jaiak memoria historikoa eta kultura herrikoia uztartu zituen zapatuan Untzaga plazan.

Argazkiak: Pedro Elizondo/Ekhi Belar





Joseba Tapia, Arkaitz Miner, Quico Puges eta Iraide Anso-renaren musikak lagunduta, hainbat herritako dantzari-ek parte hartu zuten memoria eta artea uztartu zituen ikus-kizunean. June Egurenek *Len amar lagun* kantua abestu zuen.



Kezka dantza taldearen *Gerrako gure ibilerak dantzan* emanaldiak gerra garaiko kantuek, pasarteak eta oroitzapenak ekarri zituen ikusleen aurrera.



# “Gure jarraitzaile leialei esan nahi diet plazer handia dela pasio hau eurekin partekatzea”

JORGE GOMEZ AKARREGI • LordWitch taldeko musikaria



Urkiko jaietan LordWitch taldeaz gozatzeko aukera izango dugu, beste behin, Eibarren. Hainbat urte pasa dira euren azken bisita jaso genuenetik eta tarte horretan musika berria egin dute (2023an ‘El despertar’ diskoa kaleratu zuten). Euren eskutik, heavy metal doinuak entzun ahal izango ditugu gaur gauean, 22:00etatik aurrera. Bestela, plataforma digitaletan entzun ditzakezue euren diskoak.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

**B**ergaran sortu zen LordWitch, baina badu kutsu eibartarra ere, Jorge Gomez Akarregi baita gitarra-jolea. Bere pasioa garatzen du horrela eta oso gaztetatik edandako doinuak azaleratzen ditu taldekideekin batera.

**Hainbat urte eta gero, bi kontzertu joko dituzue Eibarren. Bata Urkin, gaur, eta bestea, Untzagan, uztailaren 11n. Nola sentitzen zarete honen aurrean?**

Egia esan, gogo handiarekin gaude, batez ere ni, nire herrian bi aldiz joko dudalako. Hori benetako plazera eta poza da niretzat (barreak). Bestalde, LordWitch ez da inoiz geldirik egon, beti egon gara jotzen, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago. Une jakin batzuetan etenaldiren bat izan dugu, abeslaria genuen momentuan adibidez, baina orain Lord David dugu abeslari lanetan. Urte hasieratik hileroko eman ditugu kontzertuak. Adibidez, aurreko hilabetean Iruñean jo genuen. Eibarko bi kontzertu hauek gain, irailean Gas-teizen joko dugu, Urban aretoan; Valentzian, urrian, jaialdi batean jotzeko proposamena jaso dugu eta aztertzen ari gara; abenduan beste kontzertu bat dugu Donostian; Torrelavegan ere joko dugula esan digute... Beraz, gauzatxoak ateratzen ari dira.

**Nola aldatu da taldea hemendik pasa ez zareten sa-soi honetan?**

Ia ildo beretik jarraitzen dugu, baina musikalki aberas-tuago. Gero, Davidek freskotasan ukitu bat eman dio taldeari bere ahotsarekin.

**‘El Despertar’ diskoa atera zenuten 2023an. Nolako harrera izan zuen?**

COVIDaren garaiarekin bat zetozen eragozpen dezente izan genituen. Hala ere, ilusio eta maitasun handiz atea-ratako diskoa izan zen, riff indartsuagoekin. Jendeari izugarri gustatu zitzaion.

**Hirugarren diskoa atera arte, bederatzi urte igaro zi-ren bigarren diskotik. Zergatik hainbeste denbora?**

Bigarren diskoa kaleratu eta, hainbat kontzertu ematen hasi ginenean, abeslariaren irteerak ordezkoa bilatzera behartu gintuen. Hainbat abeslariarekin probatu genuen, baina bat bera ere ez zetorren bat taldearen esentziarekin.

**Esan izan duzue betiko heavy bandak gustatzen zaiz-kizuela batez ere (Iron Maiden, Warcry, Avalanch, Red-Wine, Halloween...), baina ateratzen doazen berriei ere ez diezuela muzin egiten. Zerekin geratu zinate-kete antzinako taldeetatik? Eta zerekin berrienetatik?**

Niri dagokidanez, antzinakoek nire nerabezaroa go-gorazten didate, izugarri gozatu baitut talde haiekin.



Jarraitzaile leialak ditu LordWitch taldeak.

Berriek, oster, freskotasuna eta orijinaltasuna ematen didate, eta intentsitate berdinarekin bizi ditut.

**Zuek norantz jotzen duzue gehien?**

Heavy power metal melodiko baterantz.

**Nolako osasuna du gaur egun heavy metalak?**

Nire ikuspuntutik baloratuagoa izan beharko litzateke, talde askok emaitza hobea izaten baitute atzerrian.

**Eta zuek, hainbeste urtetan martxan egon ondoren, nola jarraitzen duzue sortzen eta jotzen jarraitzeko sugarrarekin?**

Erraza da: egiten duguna biziki maite dugu, horrekin gozatzen dugu eta atzetik dugun jendeak hori ez desgertzea eragiten du.

**Imajinatzen dut sugar horrekin jarraitzeko kontzertuak ezinbestekoak direla. Nola bizi dituzue normalean?**

Intentsitate eta pasio handiz bizi ditugu. Gozatu egiten dugu, dena ematen dugu eta gu ikustera datorren jendea da, behetik, hori posible egiten duena.

**Eta nola gustatzen zaizue publikoak bizitzea?**

Gutaz gozatu, orain arte bezala. Alde guztietatik jarraitzen gaituzte jarraitzaile leial horiei esan nahi nieke plazer handia dela pasio hau eurekin partekatzea.



# Murrategi duina lortu nahian

Behetarrak dira, baina ez dira beste edozein eibartar baino gutxiago. Tamalez, egoera horretan sentitzen dira Murrategiko bizilagunak, “nazkatuta eta abandonatuta”, eta auzoa birgaitzeko berebiziko premia dutela salatzen dute. Lan horretarako dirua esleitu zuten 2023an, baina oraindik ez dute diru horren berririk izan. Beraz, Behetarrak elkartea akziora pasa da.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

**A**zitaín pasa eta Ego ibaiaren beste aldean aurkitzen da Murrategi auzoa. AP-8 autobideko zubiaren azpian, etenik ez duen auto hotsen artean, bertako bizilagunekin elkartu gara auzoa eta bere egoera bertatik bertara ezagutzeko. “Errepidearen junturak gero eta gehiago dilatatzen ari direla dirudi, prentsa baten antzeko zarata entzuten da auto bat pasatzen den bakoitzean eta bibrazioak ere sentitzen dira,” kexatzen da Santi Rodríguez.

Berarekin batera daude Marta Ferreira eta David Lopez Simon Murrategiko bizilagunak, eta Jose Andres Urkia, Azitainen jaiotakoa eta Behetarrak elkarteko kidea has-tapenetatik. Auzoaren sarreran egin dugu topo eta tour moduko bat egin digute, azaletik bada ere, Murrategi eta bertako bizilagunen egoera gehiago ezagutzeko.

Eremu degradatua da Murrategi. Ez bakarrik bizilagunek diotelako,



baizik eta Udalak enkarguz 2019an argitaratutako Birgaitze Integraleko Plan Bereziak berresten duelako. Dokumentuak jasotzen duenez, auzoak degradatutako eremu izateko baldintza guztiak betetzen zituen: etxebizitzaren egoera txarra zela, irisgarritasun arazo larriak zeudela, isolatuta zegoela eta sarbide eskasekin, gune publikoen eta berdeguneen falta zegoela, zerbitzuen eta ekipamenduen gabezia... eta egoera ez

da aldatu harrezkero. “Barandak zuriz margotzen dituzte lantzean behin, errepideko zuloren bat estali eta kitto. Partxeak, besterik ez”, bizilagunen berbetan.

## Arriskuan dagoen ondarea

Murrategi Azitainekin lotzen duen zubia pasata aparkalekua dago eta horren ingurukoak dira azaleratzen dituzten lehen kexak. “Batetik, aparkatzeko toki falta dago. Auzoko etxe guztiak beteta daude, 32-36 familia bizi gara bertan, eta oso aparkaleku gutxi dago”, dioskue. “Parean dagoen garajearen lurrak Udalak erosi zituen. Zergatik ez dute botatzen eta aparkaleku gehiago egiten?”, galdetzen dute.

Baina hori ez da aparkalekuekin duten arazo bakarra. “Aparkalekua hondoratzen ari da”, diosku Rodríguezek. Izan ere, eta bertan argi ikusten denez, errepidearen eta autoak aparkatuta dauden tokiaren artean malda antzeman daiteke.



Murrategiko bizilagunek eta Behetak elkarteak auzoa birgaitzeko lanean dihardute. EKHI BELAR

“Ikustera etorri izan dira, arkitektoa eta, baina ez dute ezer egin”.

Urkiaren berbetan, horren arrazoia aparkaleku azpian dagoen tunela da. “Gerra Zibilean armen trukaketa egiten zen hor. Hemen inguruko mendietan zebiltzan gudariak armak lagatzen zituzten Arrate inguruko frontean zebiltzanek hartzeko”, kontatu digu.

Izan ere, historia duen tokia da Murrategi. Ez bakarrik Gerra Zibileko kontu horregatik edo, sastrakak estalita dauden uhateek duten esanahiagatik, baizik eta orain dela hainbat mende sortu zen zubia dagoelako bertan. Aixa erreka (Aia-gaerreka) Ego ibaiarekin bat egiten duen tokian dago eta Goi Erdi Arokoa da (V. eta X. mendeen artekoa). “Bide Errealaren aurrekoa da eta Ego ibaiaren eskuineko aldetik joan eta Irure auzoa igarota, Soraluze-ira iristeko aukera zegoen, handik penintsularen hegoaldera edo iparraldera joan ahal izanez; edo Deba

## >>> Murrategiko bizilagunekin auzoan zehar ibilbidea egin dugu, bertako egoera eta dituzten behar nagusiak ezagutzeko

ibaitik Elgoibarrera eginez gero, Pirinioetarako bidea hartuz”, azaldu digute. “Harri-hormarekin egina dago, baina gaur egun etengabeko hondatze egoeran dago”.

Zubi horretatik pasatuz gero, erai-kin abandonatu batera heldu daiteke. “Bidea sastrakaz beteta egon ohi da, baina orain bidetxo bat dago eta gaztetxoak ibiltzen dira hor, txabolak egiten eta. Eraikina oso egoera txarrean dago, ea ez den ezer gertatzen hor”, azaldu digute bizilagunek kezkatuta.

### Larrialdietarako bide estuegia

Aparkalekua atzean lagata erdiko bidea hartzen badugu, aurten ehun

urte bete dituen Trust Eibarres enpresaraino heldu gaitzke, auzoak duen ondare industrialaren lekuko (zaharragoak dira bertan izan diren errota, lehenik aleak irin bihurtzeko eta gero elektrizitatea sortzeko erabili zirenak).

Errepidea nahiko zabala da, Truster doazen kamioiak sartzen dira bertatik, baina arekak landaretzaz beteta daude eta, Ferreirak dienez, “euria egiten duenenean ur gutzia errepidetik jaisten da eta ezinezkoa da bertatik ibiltzea”.

Fabrikara iritsi baino lehenago, eskuinetara, egun beroetan freskatzeko balio duen ur-putzura eramaten duten eskailerak hartu



Murrategi auzoa bertatik bertara ezagutu dugu bizilagunekin. EKHI BELAR

## >>> Auzoa biziberritzeko esleitu ziren 3 milioi euroen zain daude bizilagunak eta diru horren premia handia dutela adierazi digute

daitezke. Rodriguez makuluarekin dabil eta eskaileraren zementuzko euskarrian jarri behar du eskua, jaitsi ahal izateko. “Begira, ukitu hau”, diosku, eta bai, igartzen da heldulekua ez dela eusteko batere eroso, punta-zorrotzak dituela dirudi.

Putzua atzean lagata, eta auzoak duen beste errepidera joateko, barandarik ez duen zubi bat zeharkatu behar da. “Kontuz ibili behar zara errekarra ez erortzeko”, diosku Ferreirak. Izan ere, ama zubitxo hori pasata bizi da, beraz, askotan egiten du bide hori.

Murrategiko beste kale hori estuagoa da eta Ferreiraren amak ondo daki horrek dakarren arazoa zenbaterainokoa den. “Behin,

etxeak sua hartu zuen eta suhiltzaileak ezin ziren bertara iritsi”, kontatu digu. “Anbulantziak ere ez dira sartzen. Errepidea zabaldu egin behar da”.

### Farolak eta telebista

Behera eginez, berriz heltzen gara aparkalekura, baina azken aldapan ere kontuz ibili behar da, malda handia dagoelako, espalo gutxi eta euria egiten duenean irristakorra da. “Aparkalekutik kale horretara heltzeko irisgarritasuna hobetu behar da”, diosku makuluarekin dabilen Rodriguezek.

Aparkalekura helduta, auzoan egin beharreko lanen inguruan hausnartzen dute bizilagunek.

Baina arazoak ez dira horretara mugatzen, hain begi-bistakoak ez diren kontuak ere badaude-eta. “Adibidez, iluntzen duenean, farolek ez dute argi askorik ematen eta segurtasun faltaren sentrazioa dago”, azaldu digutenez. Dena dela, azpimarratzen dute auzoan ez dela inoiz arazo larririk egon zentzu horretan eta bizilagunen arteko harremana oso ona dela, oso estua kasu askotan. Bestela ere, lehen auzozainak behintzat bertaratzeko ardura hartzen zuela diote, “baina orain hori ere ez”.

Beste bitxikeria bat ere kontatu digute: “Autobidearen zubia delata telebistaren seinalea ez zenez ondo heltzen, antena komunitarioa Azitaingo Lanbide Eskolan dago. Orduan, seinalea joaten bada, han dagoen etengailua sakatu behar da. Eta ondorioz, seinalea ostiral arratsaldean badoa, astelehenera arte telebista gabe geratzen zara, Lanbide Eskolan ez dagoelako inor”.

Zaborrari dagokienez, egoera hau azaldu digu Rodriguezek: “Garbitzaile bati kexatu nitzaión eta zera esan zidan: *Baina begira non bizi zareten*. Ba beste edozein eibartarrek bezala zergak, isunak edo dena delakoa ordaintzen dugu guk ere”.

### 3 milioi euroren zain

Murrategiko egoera horri buelta emateko, eta 2021eko otsailean PSE-EE alderdiak auzoko Birgaitze Integraturako Plan Berezia onartu ondoren, EH Bilduk auzoa biziberritzeko 3 milioi euro bideratzea adostu zuen Espainiako Gobernuarekin. Oraindik, ostera, auzora ez da euro bat ere iritsi eta alderdi politikoak elkarri mokoka ari dira gaiaren inguruan. Bilduk PSE-ren utzikeria salatzen du eta PSE-k Bilduri leporatzen dio 3 milioi horiek akats baten ondorioz kultura-arloko beste partida batean sartu izana eta akatsa ez zuzentzea, laguntza atzeratzearen arrazoia hori dela argudiatuz.

Bien bitartean Murrategikoek bertan bizitzen jarraitu behar dute eta aspalditik daude gauzak hobetzeko zain. “Plan Berezia jasotako epeak ez dira betetzen ari eta 2023rako aurreikusitako urbanizazio proiektua oraindik ez da martxan jarri”, diote.

Gauzak horrela, eta Behetarrak elkartearen bitartez, 3 milioi horiek non dauden galdetzen dute. “Ez dakigu iritsi diren, ez diren iritsi, etorriko diren, Madrilen arrazoiren bat eman duten... Zer bait jakin nahi dugu”, diosku Urkiak. “2025eko abenduaren 1ean Jon Iraola alkatearekin bildu ginen eta



Bide honetatik suhiltzaileak eta anbulantziak pasatzen ez direla salatzen dute. EKHI BELAR

esan zigun bera joango zela Madrilera 3 milioien inguruan galdetzera eta diruarekin itzuliko zela. Txantxetan esan nion nik neuk autoan eramango nuela. Pozik eta ilusioz irten ginen bilera hartatik”, azaldu digu Rodriguezek. Iazko urte amaierarako erantzun bat jasoko zutela ziurtatu zietela diote, “baina sei hilabete pasa dira eta ez dakigu ezer”, dio Urkiak.

Horren aurrean, Behetarrak elkarte eta Murrategiko bizilagunak akziora pasa dira eta joan den asteko plenoan euren kexak agertu

zizkioten udal-gobernuari. “Ezustearen harrapatu genituen, euren aurpegiak ikustea besterik ez zegoen. Baina hainbeste aldiz eurengana joan eta erantzunik jaso ez dugunez, puntu horretara iritsi behar izan gara”, diote, eta ez dira geldituko euren beharrak eta eskakizunak entzunak eta asetuak izan arte.

Gainera, eta auzoa inork baino hobeto ezagutzen dutenez, “oso prest gaude gure behar nagusiak zerrendatu eta Udalarekin elkarlanean aritzeko”, dioskue. Duin-tasunik ez zaielako falta.



IRATI AZPILIKUETA

## Gazteon garaia

Gaur egungo testuinguru global ezegonkorrean, gero eta nabarmenagoa da herriek beren etorkizuna modu burujabea eraikitzeke beharra. Krisi ekonomiko eta sozialek, gerrek eta ideologia erreazionarioen gorakadak mundua etengabeko tentsioan kokatzen dute, eta horrek zalantzan jartzen du herri askoren etorkizuna. Testuinguru horretan, Euskal herriak ezin du kanpoko dinamikek markatutako norabidean beste pausorik eman, bere aitortza politikoa eta erabakitzeko eskubidea ukatuak izaten jarraitzen baitute.

Egoera horren aurrean, gero eta argiagoa da alternatiba propioak eraikitzea dela bide bakarra. Eta alternatiba horiek ez dira hutsetik sortzen, herriaren antolakuntzan, kontzientzian eta borrokan oinarritzen dira. Zentzu horretan, gazteriaren papera erabakigarria da. Gazteak izan dira historikoki eraldaketa prozesuen motor, eta gaur egun ere hala izateko baldintza guztiak daude. Hala ere, egungo belaunaldiak aurrean dituen erronkak bereziak dira, prekarietatea, lan baldintza kaskarrak eta etorkizunerako ziurgabetasuna pairatu beharra dugu herri honetako gazteek.

Testuinguru horrek arriskua dakar, etsipena eta desaktibazioa nagusitzea. Hala ere, aukera bezala ere ikus daiteke. Egoeraren larritasunak antolatzeke beharra agerian uzten du, eta gazte askok gero eta gehiago ikusten dute kolektiboki antolatzea dela benetako irteera. Gazteak aktibatzea, sareak ehuntzea eta borroka politikoa egituratzeko espazioak sortzea ezinbestekoa dira gaur egungo testuinguruaren aurrean.

Independentzia, ikuspegi horretan, ez da helburu abstraktu edo urrun bat. Tresna politiko eta sozial bat da, herri justuago bat eraikitzeke aukera ematen duena. Herri bat, non gazteek ez dugun prekarietatean bizitzera kondenatuta egon behar, baizik eta duintasunez bizitzeko baldintzak izango ditugun. Horregatik, independentziaren aldeko borroka lotuta dago gazteon eguneroko behar eta nahiekin.

Azken batean, une honek konpromisoa eskatzen du. Ez da nahikoa egoeraren diagnosis egitea; beharrezkoa da pausoa ematea, antolatzea eta kolektiboki jardutea. Etorkizuna ez dago idatzita, baina eraiki daiteke. Eta horretan, gazteok funtsezko subjektu gara: gure esku dago gaurtik hasita biharko Euskal Herria nolakoa izango den erabakitzea.

**“Gazteak aktibatzea, sareak ehuntzea eta borroka politikoa egituratzeko espazioak sortzea ezinbestekoa dira gaur egungo testuinguruaren aurrean”**

# db!

## DEBABARRENEAN ZEHAR



### AURREKO SAIOAN

Debabarreneko herrietako ereserki eta kanta ezagunak entzun genituen, musikaren bidez eskualdeko nortasuna eta iragana gerturatuz.

### HURRENGO SAIOAN

Debabarreneko ur-txoko eta bainurako guneak ezagutuko ditugu, kostaldeko zein barnealdeko aukera freskagarriak herriz herri aztertuz.

## ALBISTEAK

Etxebizitzaren Aldeko Itun Sozialaren eta Foroaren bilkurak egin dituzte Eibarren.



Eskualdeko langabezia-tasa %10,09ra igo da maiatzean, Soraluzek du tasarik altuena (%12,87).



## Ekai 5

IRAKUR.	<b>LE SALON DES MOTS</b> FRANTSESEKO IRAKURKETA KLUBA	19:00	LIBURUTEGIA (ERMUA)
JAIK	<b>TXINDURRI EGUNA</b> (EKAINAK 5, 6 ETA 7)	Egun osoa	HERRIGUNEA (ERMUA)
JAIK	<b>URKIKO JAIK</b> TXUPINAZOA, TRIKIPOTEOA, KONTZERTUA	19:00	URKI (EIBAR)
JAIK	<b>EUSKAL DANTZAK</b>	19:00	KALEGOEN PLAZA (ELGOIBAR)
BINGO	<b>BINGOA KALEAN</b>	17:00	PLAZA BARRIXA (SORALUZE)
BERTSO	<b>BERTSO SAIOA</b>	19:30	FRONTOI ZAHARRA (ITZIAR)
HITZAL.	<b>HAMARKADAKO DANTZA BERPIZKUNDEA</b>	18:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)
MUSIKA	<b>BOMBOCLAT</b>	19:30	ONDARGAIN (DEBA)

## Ekai 6

EGITAR.	<b>BALI &amp; IPAR</b> 5. URTEURRENA	10:00 etatik	MATXARIA (EIBAR)
TOPAK.	<b>ESKOLA POLITIKO FEMINISTAK</b> E.H. - GUATEMALA	11:00	ERREBAL (EIBAR)
POESIA	<b>XIII EMANALDI POETIKO MUSIKALA</b>	19:00	IBARKURUTZE (EIBAR)
JAIK	<b>URKIKO JAIK</b> HERRI KIROLAK, BATUKADA, MUSIKA	Goizetik	URKI (EIBAR)
MUSIKA	<b>ZERO, EL EXTERMINIO DE LA RAZA DEL MONO ETA 3 CUERVOS</b>	22:00	GAZTETXEA (SORALUZE)
MERK.	<b>MERKATU TXIKIA</b>	09:00	PLAZA ZAHARRA (DEBA)

## Ekai 7

ERAK.	<b>PALESTINA, HAREN HISTORIARI BEGIRADA</b>	12:00	TOPALEKUA (EIBAR)
EGITAR.	<b>URKIKO JAIK</b> CIELITO BANDA + GALDARAMIÑO IGOERA	09:00 etatik	URKI (EIBAR)
AZOKA	<b>GAZTA ETA ARTISAUTZA</b>	11:00	ENPARANTZA (MENDARO)
AZOKA	<b>NEKAZARITZA ETA ARTISAUTZA</b>	10:00	PLAZA (MALLABIA)
MUSIKA	<b>GAZTE ALAI DANTZA TALDEA</b>	13:00	PLAZA (MALLABIA)



Asua baserriko kideak gari-soroan. EGO IBARRABATZORDEA

Garo-batzea. Non, noiz eta zelan jarduten zuten ira ebakitzen. Azpelak. Garo-sail onenak Kalamua-Akondia inguruan zeuden.

## Garo-sailak eta garo-batzeak

**Julian Echeverria Oruna Ubitxa**  
(1913 – 2005)




Otaola-Kiñarraga bailarako Ubitxa baserrian jaiotakoa. Aita eta aitita ere baserri hortakoak ziren. Ama, Jobita Oruna, Aramaiokoa. 14 urterekin Eizagarenera joan zen lanera, baskulagintzan ikastera; 20 urterekin Bittor Sarasketarenera. 65 urte bete arte jardun zuen bertan lanean.

**Julian Echevarriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa**

[Eta garua edo iria ta... nun batzen zan?] Joe, benetan? Ba mendixan! Ira ebaten... zerakin, igitaixa badakizu zer dan? “Hoz”. Igitaixakin ebagi ta batu ta azpelak ein hamen galtzarpera ta “ra!” ta “ra!” ta “ra!” laga ta egun guztian. Etxera, basarrira juan ta babak jan, amak ekartzen zittuan babak, ta urdaixakin jan ta ala! Barrero atsalde guztian. Ta gero azpelak ein ta gero, egualdixa ona etortzen zanian, batu ta ipintzen genduan egur haundi bat, goittik behera, aldaparia danak hemen ta aldapia ipini ta aitta jartzen zan gaññian ta guk garua eruan ta aittak tolostu. Ta gero behera sokiakin tiratu. Horrek egixak dia gero, e! Ez pentsau gero inbentau dotenik bape e! Ta behera ta gero, ba, ganauekin edo idixekin behian burdixa kargau ta etxera. Aitta izaten zan jefiori, guk biharra. Aitta izaten zan burdixa kargatzen ebanori, preparatzen ebana zerori. (...)



# UDAKO MODA 2026



2026ko udako modak norabide argi bat erakusten du, non erosotasuna eta dotorezia elkarrekin bizi diren modu naturalean. Denboraldi honetan, pasareletan eta kaleko estiloan ikusten den joera nagusia argia da: moda arina, funtzionala eta aldi berean zaindua, koloreekin eta ehundura naturalekin jolasten duena.




:

# NATURAL- TASUNA ETA DOTOREZIA LASAIA



## EDERTASUN NATURALA MODAN

2026ko udan ile-apainketaren eta estetikaren munduan naturaltasuna izango da joera nagusia. Ileari dagokionez, erraz konpontzeko moduko mozketak, luzera ertaineko ilea eta mugimendua ematen duten geruza leunak egongo dira modan. Koloreetan, berriz, eguzkiak naturalki argitutako efektua bilatuko da, ezti, karamelu eta gaztaina tonu argitsuekin. Ausartenek kobrezko ñabardura leunak edo pastel ukitu sotilak ere aukeratuko dituzte.



Orrazkerei dagokienez, erosotasuna eta freskotasuna izango dira gakoak: motots baxuak, txirikordak eta ile bildu informalak nagusituko dira, baita ile-osagarriak ere, hala nola zapitxoak, diademak eta apaingarri bereziak. Egungo tententziek estilo zaindua eta naturala uztartzen dituzte, eguneroko erritmoari erantzuteko moduko proposamenekin.

Estetikan, azal osasuntsu eta distiratsua lortzea izango da helburua. Tratamendu leun eta pertsonalizatuak gero eta gehiago eskatzen dira, hidratazioa, argitasuna eta ongizatea lehenetsiz. Gainera, gero eta garrantzi handiagoa dute osagai naturalak dituzten kosmetikoei eta larruzalaren oreka errespetatzen duten produktuei.

Makillajearen ere naturaltasuna izango da nagusi: estaldura arineko produktuak, tonu beroak eta "aurpegi osasuntsuaren" efektua bilatzen duten proposamenak nabarmenduko dira. Ezpain hidratatuak, masail arrosatuak eta distira leuna dira uda honetako ezinbesteko elementuak. Azken finean, 2026ko udak edertasun autentikoa, ongizatea eta norberaren ezaugarriak modu naturalean indartzea izango ditu ardatz.





## SOINEKOAK ERDIGUNEAN

Soinekoak udako armairuko pieza nagusi izaten jarraitzen du eta 2026an bereziki nabarmentzen dira silueta fluidoak eta arinak. Maxisoineko luzeak, ehun mugikorrek eta bolante edo drapeatuak bezalako xehetasun erromantikoak indarrean daude, baita gardentasun sotilak ere. Helburua argia da, eguneroko erabilerarako egokiak diren jantziak sortzea, goizetik gauera erraz moldatzen direnak eta ahaleginik gabeko dotorezia transmititzen dutenak.



## “SLOW SUMMER” ESTETIKA

Udako moda honek naturaltasunaren ideia ere indartzen du, askotan “slow summer” deitzen den estetika bidez. Lihoa, kotoi arina eta ehun organikoak protagonismo handia hartzen dute, baita krotzet lana eta eskuz egindako itxura duten piezek ere. Honek guztiak opor giroko sentsazioa sortzen du, lasaitasuna eta freskotasuna transmitituz, eta moda-kontsumo lasaigo baten aldeko apustua eginez.

## ESKUZ EGINDAKO DETAILIAK ETA OSAGARRIAK

Detaileetan ere eskuz egindakoaren balioa nabarmentzen da. Korapiloak, drapeatuak eta ehunen testura ikusgaiak gero eta presentzia handiagoa dute, jantziei nortasuna eta berezitasuna emanaz. Moda industrialaren aurrean, pieza berezien eta artisau kutsuaren aldeko joera indartzen ari da.

Osagarriek ere protagonismo handia hartzen dute, batez ere tamaina handiko poltsek, eguzkitako betaurreko deigarriek eta bitxi gainjarriek.



## OINETAKOAK

Oinetakoetan ere 2026ko udako joerak argi uzten du norabidea: erosotasuna da abiapuntua, baina estiloa ez da bigarren mailan geratzen. Sandalia minimalistak dira protagonista nagusiak, lerro garbi eta sinpleekin, egun osoan jantzeko modukoak eta edozein lookekin erraz uztartzen direnak.

Horrez gain, gero eta indar handiagoa hartzen dute plataforma arinek, altuera apur bat ematen dutenak baina egonkortasuna eta erosotasuna galdu gabe. Beste joera nabarmen bat “barefoot” inspirazioko oinetakoak dira, oinaren mugimendu naturala errespetatzen duten diseinuekin, eta gero eta gehiago ikusten dira udako estilismoetan, bereziki itxura natural eta lasaia bilatzen dutenen artean. Sandalia lauek ere ezinbestekoak izaten jarraitzen dute, bereziki eguneroko erabilerarako, sinpletasuna eta funtzionalitatea uztartzen baitituzte.

**CAPI** Bidebarrieta, 5 943 201 547  
www.capiestetica.es

**AURPEGI TRATAMENDUAK**

Azalaren diagnostiko zehatza  
Skin-touch

**GORPUTZ TRATAMENDUAK**

Gorputzaren birmoldaketarako behin-betiko konponbidea:

- IZTERRAK
- IPUR-MASAILAK
- BESOAK
- SABELALDEA

- MANIKURAK
- PEDIKURAK
- BETILE LUZAPENAK
- LIFTING

Errebal 16 **umea** 943 20 31 64

## SURFAREN ETA HONDARTZAREN UKITUA, GIZONEZKOEN MODAN

2026ko udan gizonezkoen modak askatasuna, erosotasuna eta naturaltasuna izango ditu ardatz. Azken denboraldietan ikusi den bezala, hondartzako eta surfaren inguruko estetikak gero eta presentzia handiagoa du kalean ere, eta uda honetan joera hori are gehiago indartuko da.

Kamiseta zabalak izango dira protagonista nagusietakoak. Kolore neutroetan zein tonu bizietan ikusiko dira, askotan surf marken inspirazioa duten irudiekin, itsasoari lotutako marrazkiekin edo estilo retroko logotipoekin. Ebaki lasaiek erosotasuna lehenesten dute, eta arropa formalagoen aldean, mugimendu eta freskotasun handiagoa eskaintzen dute.

Praketan, berriz, belauen gainera iristen diren bermudak izango dira nagusi. Kotoizkoak, lihozkoak edo ehun tekniko arinez eginak, hondartzarako zein hirirako egokiak izango dira. Koloreei dagokienez, harea-tonuak, urdin argiak, berde leunak eta lur-koloreak izango dira ohikoena.

Udako alkandora arinek ere indartsu jarraituko dute. Mahuka motzeko modeloek, marra finak, lore txikiak edo inspirazio tropikaleko estanpatuak izango dituzte maiz. Irekita eramango dira askotan, barruan kamiseta zuri soil batekin, itxura informal baina zaindua lortuz.

Oinetakoetan, erosotasuna izango da berriro gakoa. Sneakers arinak, lona-zapatak eta sandalia minimalistak izango dira aukerarik erabilienak. Horiekin batera, txankletak ere gero eta gehiago



ikusiko dira eguneroko jantzietan, hondartzatik harago.

Osagarriek ere garrantzia izango dute. Bisera klasikoak, eguzkitako betaurreko handiak, mihisezko poltsak eta lepoko sinpleak modan egongo dira. Guztiek estilo lasaia eta naturala indartzen dute.

ESTILISTAK  
Fermin Calbeton, 17 - behea/ezkerra  
*DOLCE VITA*  
Tfnoa. 943 20 18 53  
ESTETIKA

**E**  
IBONE  
ESTETIKA

ROMUALDO GALDOS

943 20 16 01

**NEW LOOK**

@newlook\_\_estilistas  
943 009 304  
Egogain 15ac Eibar

**ALTAIR**  
DESIGNERS

Fermin Calbetón, 4  
943 20 72 07  
@peluqueria\_altair

# Sorginbaso, Eibarko etorkizuneko basoaren hazia

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



Eibarko Baso Biziak elkarteak 12 hektareako lur berria erosi du Unbe inguruan, eta ia 50 hektareako sare ekologikoa osatu du jada jabetzan eta kudeaketan. Biodibertsitatea indartzeko asmoz, hektareak lortu eta baso jarraitu bat sortu nahi dute. Elkarateak herritarren eta enpresen inplikazioa eskatu du proiektua hazten jarraitzeko.

**E**ibarko Baso Biziak elkarteak urrats esanguratsua egin du bere proiektu ekologikoan: “Sorginbaso” izeneko 12 hektareako baso-lursaila erosi du, eta horrekin ia 50 hektareako sarea osatu du jabetzan eta kudeaketan. Elkaratearen esanetan, ez da lur berriak eskuratzea soilik, baizik eta “etorkizuneko baso jarraitu, bizi eta funtzional bat eraikitzen jarraitzea”.

“Sorginbaso” izena Eibarko toponimia zaharretik berreskuratua da. Unbetik Asurtzara igotzen den bidearen inguruko eremu historiko batean dago, Eibarko toponimia mapetan jasotako izen zahar batean oinarrituta. “Mapa batean aurkitu genuen izena, Asier Sarasuak egindako toponimia lan batean. Izenak indarra zuen, eta bertakoa izanik, proiektuari ematea erabaki genuen”, azaldu dute.

**Unbe inguruko eremu estrategikoa**  
Sorginbaso Unbeko lepo inguruan dago, rugby zelaitik ezkerretara doan eremuan, eta historikoki Eibar

eta Elgeta lotzen zituen bide zahar baten inguruan kokatzen da. Elkaratearen arabera, dago kokapen hori ez da kasualitatea: jarraikortasun ekologikoaren ikuspegitik eremu estrategikoa da.

Helburua ez da lur zatien pilaketa isolatua, baizik eta baso-masa jarraitu bat osatzea. “Baso batek funtzionatzeko gutxieneko azalera behar du. Hektarea solteek ez dute balio; konektatutako sistema bat behar da biodibertsitatea bermatzeko”, azaldu dute.

Gaur egun, Eibarko Baso Biziak elkarteak 27 hektarea inguru ditu jarraian dauden eremuetan Unbe inguruan, eta beste hainbat lur sail kudeatzen ditu hitzarmen edo “kustodia” eredu bidez. Guztira, 50 baino pixkat gehiagoko sare ekologiko baterantz doa elkarteak.

**Baso “benetan funtzionala” lortu nahia**

Elkarateak ez du hektarea kopuru zehatz baten helmugarik. Bestalde, azaldu dutenez, 100 hektareako



Eibarko Baso Biziak natur elkartearen talde-argazkia. IRATIALVAREZ

jarraikortasun ekologikoa litzateke baso on batek biodibertsitate on bat garatzeko beharko lukeen gutxieneko dimentsioa. “100 hektarea jarraituetan soilik hasten dira benetako harreman ekologikoak, faunaren mugimendu egonkorrak eta ekosistema konplexuak sortzen”, azaldu dute.

Eremu txiki eta isolatuen aldean, azalera handiek aukera ematen dute biodibertsitate handiagoa eta habitat egonkorragoak sortzeko, baita erreka, urmael eta bestelako elementu naturalen integrazioa ere.

#### **Lurren mosaikoa: erosketa eta kustodia**

Proiektua ez da oinarrizten jabetza soil batean. Elkarreak bi formula nagusi erabiltzen ditu: batetik, lurren erosketa zuzena, eta bestetik, kustodia edo lurzaintza hitzarmenak.

Azken kasu horietan, lur jabeek 25 urte inguruko akordio bidez kudeaketa ekologikoa elkartearen esku uzten dute. Horrek aukera

## **"Baso batek ekologikoki funtzionatzeko ez dira nahikoak hektarea solteak"**

ematen du lursail pribatuak ere sare ekologikoan txertatzeko. “Ez da jabetza kontua. Guretzat garrantzitsuena lur horiek nola kudeatzen diren da”, azaldu dute.

#### **Basoaren dinamika: naturari lekua uztea**

Elkartearen lanaren ardatzetako bat da naturaren prozesuari denbora eta espazioa ematea. Lur bakoitza aztertu eta bere egoeraren arabera erabakitzen dute esku hartzea edo ez.

Askotan, pinudi moztu berriak izaten dira esku hartzearen abiapuntu. Kasu batzuetan, naturak

berak berreskuratzen du eremua; beste batzuetan, landaketa osagarriak egiten dira.

Urtero, 1.000 eta 1.300 zuhaitz artean landatzen dituzte, baina ez modu uniformean: haritzak eta pagoak nagusitzen dira eremu hezeetan (Unbe inguruan), eta artea edo mediterraneoko espezieak eremu lehorragoetan (Arrate aldean, adibidez). “Ez dugu ilara artifizialeetan landatzen. Helburua ez da baso ordenatu bat, baizik eta baso bizi eta konplexu bat”, diote.

#### **Biodibertsitatea eta espezieen itzulera**

Proiektuaren beste ardatz nagusi bat biodibertsitatearen berreskurapena da. Horretarako, zuhaitzez gain, zuhaixka eta fruitu-espezieak ere sartzen dituzte: gorostia, basosagarriak, aranak, keixak edo mada-riak, besteak beste.

Horren bidez, fauna txikiaren elikadura-katea indartu nahi dute eta ekosistemaren oreka naturalari lagundu. Elkarreak azaldu due-



Eibarko Baso Biziak elkarteak eginiko ekintzak. EIBARKO BASO BIZIAK

## "Baso-lurrak erosteko eta babesteko aukera oraindik badago, baina denbora mugatua da"

nez, pinudi monokultiboek izan dituzten arazoen (gaixotasunak eta ahultasun ekologikoa) erakutsi dute aniztasunaren beharra. "Espezie bakarrek basoak ahulagoak dira. Biodibertsitatea da erresilientziaren giltza", diote.

### Basoaren bilakaera

Erositako lurretan basoaren bilakaera modu argian ikus daiteke. Ereku batzuk hasierako fasean daude, beste batzuk garapen ertainean, eta badira urte luzez ukitu gabe egon diren partzelak ere, non baso-egitura naturalagoak agertzen hasi diren.

Horrek paisaian mosaiko bat sortzen du: zuhaitz gazteak, tarteko

garapeneko eremuak eta naturalki sendotzen ari diren baso zatiak elkarrekin. Elkartearen arabera, aniztasun horrek ekosistema aberatsagoak sortzen laguntzen du.

Gainera, azken urteetan zenbait eremutan naturak bere bidea hartu du, eta 15-20 urtean esku-hartzerik gabe egon diren lurretan baso helduaren lehen egiturak agertzen hasi dira.

### Ura, erreka eta ingurune zabala

Baso proiektua ez da zuhaitzetara soilik mugatzen. Elkarteak erreken egoera, uraren kalitatea eta fauna txikiaren jarraipena ere lantzen ditu.

Ego ibaiaren eta haren adarren inguruko ikuspegi "ardatz estrate-

gikoa" dela diote, nahiz eta oraindik azpiegitura eta hobekuntza ugari falta direla uste duten. "Errekari bizkarrez bizi gara askotan. Hori aldatu behar da", azaldu dute.

### Komunitatea proiektuaren erdigunean

Eibarko Baso Biziak elkarteak 200 bazkide baino gehiagok osatzen dute gaur egun. Horrez gain, enpresa-laguntzak, proiektu-deialdiak, ekintza publikoak eta boluntarioritza-sare bat ere badute.

Sorginbaso proiektua, kasu honetan, enpresa baten barruko proiektu baten bidez finantzatu ahal izan da, eta horrek erakusten du finantzaketa eredu anitz baten beharra. "Elkarteak ez da lau lagun proiektua. Herriarena da", azpimarratu dute.

### Deia herritarrei: "Orain da unea"

Elkarteak mezu argia helarazi du: baso-lurrak erosteko eta babesteko aukera oraindik badago, baina denbora mugatua da. "Orain da unea. Gero, berandu izan daiteke", laburbildu dute.

Horregatik, elkarteak herritarrei parte hartzeko deia egin die: bazkide, lankide, eta ekimenetan parte hartzea dira bide nagusiak. Bilerak astero egiten dituzte Arrate Kultur Elkartearen, astelehenetan 19:00etan.

Horrez gain, ekainaren 13an, eguerdian, Untzagan postua jarriko dute, elkartearen kamisetak saltzeko eta bazkide egiteko aukera emateko.

Azkenik, gogorazi dute informazio gehiagorako web orrialdea dutela (eibarkobasobiziak.eus) eta harremanetan jartzeko eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera mezu bidaltzeko aukera dagoela.



SAIOA J. SAN MARTIN

## Tradizioa ala sistema sostengatzen duen soka?

“Tiraka eta bultzaka atera naute etxetik. Ez dakit nora naramaten, zertara. Kamioi antzeko batera sartu eta bertan botata laga naute. Nora noa? Ez dakit. Soka batekin lepotik lotu, eta kalean utzi naute. Zer egiten dut?

Jendea pilatzen hasi da. Oihuak entzuten ditut, barreak, pausoak. Sokak lepoa estutzen dit. Aurrera egiten dut, egin nahi dudak bakarra ihes egitea den arren. Nik ihes egitea nahi dut. Besteek festa deitzen diote”.

Sokamuturra. Benetako tradizioa ala sistema sostengatzen duen soka? Pentsatu dugu tradizioa aldaezina dela. Nola aldatuko dugu betidanik existitu den festa bat? Neure buruari galdetzen diot: benetan norbaitek uste du ospatzeko maltratua behar dela? Edo animaliek guk baino eskubide gutxiago dutela zainduak izateko? Noiztik da gure moralak zezen batena baino altuago edo baliotsuagoa?

Sokamuturra ez da ausardia. Ezer ez da kultura beldurra erdigunean dagoenean. Simone de Beauvoir-ek idatzi zuen bezala, “ez da emakume jaiotzen, emakume bihurtzen da”. Agian tradizioekin ere gauza bera ulertu beharko genuke: ezer ez dela sakratu jaiotzen. Eraiki, errepikatu eta mantentzea erabakitzen dela. Zalantzan jar daiteke. Apurtu ere bai.

Festatzat saltzen digutena zarata da, dardara ez entzuteko. Zezenaren korrika erakusten digute, baina ez haren begiak. Irakatsi digute sufrimenduak gutxiago pisatzen duela inguruan musika, alkohola eta festa badago.

Plaza dardarka dagoen bitartean, animalia bat ihesi doa. Norbaitek edalontzia altxatzen duen bitartean, beste gorputz batek izuaren esanahia ikasten du. Agian tristeena ez da lepoan duen soka. Ez tiraka daramaten eskuak. Ez irteera guztiak ixten dizkion jendetza. Agian tristeena da konturatzea munstroa ez dela inoiz zezena izan. Munstroa ohitura izan dela. Isiltasuna. Indiferentzia kolektiboa.

Eta orduan zezena korrika hasten da. Ez du hizkuntza ulertzen. Ez daki zergatik dauden denak haren kontra, baina korrika egiten du. Ihes egiten saiatzen da. Eta momentu horretan, zezena izateari uzten dio. Amorrutik bihurtzen da.

Nekea. Memoria. Isilik sufritzerak behartutako gorputz guztien sinbolo. Eta gu, harmailetan, geure burua ikusten hasi beharko genuke behingoz. Zeren eta tradizio baten izenean mina normalizatzen denean, ez baitu animaliak bakarrik galtzen bere askatasuna.

Gizatasuna ere galtzen hasten gara.

**“Agian tristeena da konturatzea munstroa ez dela inoiz zezena izan. Munstroa ohitura izan dela. Isiltasuna. Indiferentzia kolektiboa”**

# “Hamaika urte daramatzat AP-8aren zarataren aurka borrokan”

JOSEBA OLAZABAL • Mendaroko *biolinista*



AP-8 autobidearen ertzean bizi da, eta urteak daramatza errepideak sortzen duen zarataren aurka protestan. Kartelak, gutunak eta biolina baliatuta, bere etxeko egunerokoa borroka pertsonal bihurtu du.

Testua **LEIRE GOMEZ ACHA**

**M**endaron, autobidearen ondoan, errepidetik datorren zaratak markatzen du dena. Etxea baino geroago iritsi zen AP-8a, baina gaur egun haren presentzia etengabea da: kamioien kolpeak, balaztatzeak, joan-etorri amaigabea. Han bizi da Joseba Olazabal (Mendaro, 1963) eta hamaika urte daramatza egoera horri aurre egiteko modu propioa asmatzen. Hasieran, kexak izan ziren; gero, errepide ertzean biolina jotzen hasi zen. Denborarekin, protesta ez da soilik aldarrikapen bat izan: egunerokoaren parte bihurtu da, lan isil eta temati baten emaitza.

## Nor da AP-8ko biolinista?

Ni protestan hasi nintzen hemen gertatzen zenagatik, eta pixkanaka etorri da beste guztia. Lehenengo, istripuen kontuagatik hasi nintzen, hau puntu beltz bat zelako. Hemen istripu asko gertatzen ziren, oso larriak gainera. Gure etxea askotan bihurtzen zen lehen sorospen lekua: nire amak bazekien lehen laguntzak ematen, eta anbulantzia etorri arte hemen egoten ziren zaurituak. Horrek markatu egiten zaitu.

Gero, neurriak jarri zituzten, baina horrekin beste arazo bat etorri zen: zarata. Eta orduan hasi nintzen konturatzen arazoa ez zela desagertu, baizik eta beste forma bat hartu zuela. Orain istripuak gutxiago dira,

baina zarata etengabea da. Eta hori da gaur egun jasanezina egiten zaidana.

## Nolakoa izan da zure ibilbidea hemen, urte haue-tan guztietan?

Hasieran oso modu arruntan hasi nintzen: kartelak jartzen. Zaratarik ez, edo antzekoak, baina kendu egiten zizkidaten. Gero gutunak bidaltzen hasi nintzen, azalpenak eskatzen, neurriak proposatzen... baina ez nuen erantzunik jasotzen. Orduan beste pauso bat eman nuen: istripuak zenbatzen hasi nintzen. Argazkiak ateratzen nizkien eta bidali egiten nituen. Hiru hilabetean 36 istripu zenbatu nituen. Eta lanean nenbilen bitartean gertatu zirenak gehiago izan ziren... Hortik aurrera hedabideak hasi ziren etortzen. Serio hartzeko momentua heldu zela pentsatu nuen. Gipuzkoako Diputaziora joan nintzen, baina han ez zidaten kasu handirik egin. Are gehiago, momentu batzuetan mehatxu modukoak ere sentitu nituen. Baina ni ez nengoen gelditzeko prest.

Egia da momentu horietan ikusten dela zenbat lan dagoen atzean. Jendeak askotan ikusten du biolina edo kartela, baina hori baino lehen urte asko daude, ahaleginak, ezetzak, eta berriz hasteko beharra.

## Noiz bihurtu zen hori guztia gaur egun ikusten den protesta?



Uda zein negu, oporrik ez du hartzen Olazabalen protestak. LEIRE GOMEZ

Momentu bat iritsi zen non pentsatu nuen ezin nuela horrela jarraitu. Chopin entzuten ari nintzen, Opus 10eko laugarren mugimendua, eta irudi bat etorri zitzaidan burura: hasieran suabe doa, gero crescendo bat dator, gero indar handia hartzen du, eta azkenean baretu egiten da. Pentsatu nuen egoera horretan nengoela. Hasieran, isilik aguantatzen egon naiz, ezer esan gabe. Gero, momentu bat iritsi da non dena handitu den, zarata, nekea, amorrua... eta hor nago orain, fase horretan, eta gustatuko litzaidake noizbait berriz baretu ahal izatea.

Orduan, erabaki nuen zerbait egin behar nuela, baina modu desberdin batean. AP8-an crescendo baten erdian nago.

#### **Hortik dator biolina?**

Bai. Musika betidanik gustatu izan zait, eta pentsatu nuen: etxean entseguak egin beharrean, zergatik ez hemen? Azkenean, zarata honekin ez ninduen inork entzungo, baina ikusiko ninduten, eta hori zen gakoa. Nik nahi nuena zen jendeak galdetzea: zer egiten du

## **"Etxean entseguak egin beharrean, zergatik ez hemen? Azkenean, zarata honekin ez ninduen inork entzungo"**

gizon honek hemen? Zergatik dago hemen eserita, biolina jotzen? Nire borroka ez balitz berezia edo pixka bat arraroa, jendeak ez luke galderarik egingo. Eta nik hori nahi nuen: jendeari galdera sortzea buruan.

#### **Egunerokoan, nola bizi duzu hori?**

Ni ez naiz geldirik egoteko modukoa. Beti nabil zerbait egiten: baratzea, oiloak... Baina zaratak agintzen du. Goizean goiz hasten naiz, zazpi eta erdietan, eta egunean zehar hainbat aldiz joaten naiz autobidera. Baina askotan ez da planifikatutako zerbait. Etxeko atarian eserita nago, eta bat-batean zarata bortitz bat



**"Pentsatzen nuen: hemen inork ez dit laguntzen, eta Trump aditua da hormak jartzen, igual berak lagun nazake"**

**"Jendeak askotan ez du ulertzen, eta batzuek erotzat hartzen naute"**

entzuten dut. Kamioiak, kolpeak... eta orduan altxatu egiten naiz. Haserretu egiten naiz eta berriz hasten naiz. Negua gogorra da, hotzarekin ezinezkoa da batzuetan. Udan, berriz, zirkulazio handiagoa dago eta gehiago egoten naiz. Horregatik jarri nuen kartela: "En agosto no cerramos".

#### **Umorea ere sartu duzu bidean.**

Bai, bestela ezinezkoa da. Hasieran serioagoa zen guztia, baina denborarekin konturatu naiz umore pixka batek ere balio duela. Help Trump kartela, adibidez, hortik dator. Pentsatzen nuen: hemen inork ez dit laguntzen eta Trump aditua da hormak jartzen, igual berak lagun nazake.

Baina horrek egoera surrealista bat ekarri zuen. G7-a zela eta [7 herrialde boteretsuenen goi-bilera], Trump etorri zen ingurura eta bere segurtasunekoak etxera etorri zitzaizkidan. Galderak egiten hasi zitzaizkidan eta nik ez nuen ulertzen zer gertatzen zen. Azkenean, sareetan begiratzeko esan nien eta ulertu egin zuten. Baina momentu horretan... ez nekien non sartu! Nork inajinatuko zuen halakorik?

#### **Horrelako gehiago ere bizi izan dituzu.**

Bai, asko. Behin, lagun udaltzain batek deitu zidan. Bikote frantses bat polizia-etxean agertu zen, oso beldurtuta. Esaten zuten gizon bat zegoela autobidean, ahoa zinta batekin estalita, aulki batean eserita. Ni nin-

tzen. Haiiek ez zuten ulertzen ezer, eta poliziak, barrez. Egoera horiek barregarriak dira, baina erakusten dute jendeak zer ikusten duen kanpotik.

#### **Zergatik estaltzen duzu ahoa?**

Debekatuta daukat edozein jarduera egitea, nahiz eta nire lurretan egon. Hitz egitea ere ekinga da. Orduan, ahoa estaltzea ere protesta bat da.

Kartel asko kendu dizkirate. Bat bereziki asko gus-tatzen zitzaidan: Ni erotuta banago, Rosa Parks erotuta zegoen?

#### **Zer aurkitu duzu bidean?**

Denetik. Jendeak askotan ez du ulertzen, eta batzuek erotzat hartzen naute. Baina beste askok lagundu didate. Iparraldetik etorri ziren batzuk, Paxkal Irigoien tartean, nirekin jotzera. Kontzentrazio bat egin genuen, eta ehun bat lagun bildu ziren.

Beste egun batean, Anari eta bere taldea etorri ziren ustekabean. Autobidean bertan jo zuten. Nirekin. Horrelako momentuek jarraitzeko indarra ematen didate.

#### **Zer da zuretzat hau guztia gaur egun?**

Nik esaten dut jada hau dela nire jardunbidea. Ez da nire kontua bakarrik, auzo osoarena da, baina nik argi daukat gauza bat. Ez badut nik egiten, inork ez du egingo niregatik.

Eta galdera bat egiten dut beti: zer egingo zenuke zure etxea balitz?



## Urbateko hamar lagun Gipuzkoako selekzioarekin Poloamigos txapelketan

**E.B.** Joan zen domekan, Gipuzkoako Alebinen Kluben Atletismo Txapelketa jokatu zen Unben “arrakasta handiz”, Eibarko Klub Deportibokoekin berbetan. “Giro bikaina, parte-hartze handia eta antolakuntza ezin hobea” izan ziren protagonista euren berbetan, eta 300 parte-hartzaile inguruk goiz lehiakor eta atsegina bizi izan zuten.

Guztira, 23 taldek hartu zuten parte bertan, nesken kategorian 13

taldek eta mutilenean 10ek, eta tartean ibili ziren Klub Deportibokoak, emaitza txukunak lortuz. Izan ere, nesken taldeak 5. postuan amaitu zuten lehia eta mutilenak 6. postuan.

Nesken taldea Isabel Pita, Luke Litago, Nora Arriola, Lucia Arkotxa, Jule Azurmendi eta Maddi Perez De Obanosek osatu zuten; eta mutilena Iker Caño, Markel Urain, Mikel Astarloa, Markel Laskurain, Gari Prieto eta Danel Zubiak.

## Kuadrillen arteko futbol 7 txapelketa berotzen

**E.B.** Antolatzaileek diotenez, “udari hasiera ematen dio” kuadrillen arteko futbol 7 txapelketa eta, aurten ere, horrela izango da. 5. edizioa jokatuko da ekainaren 13an, larunbata, eta ehundaka lagun igoko dira Unbera futbolaz eta jai giroaz gozatzen.

Antolatzaileak txapelketa zehazten doaz eta multzoak zeintzuk diren argitaratu dute. Guztira 40 taldek hartuko dute parte eta bost taldeko zortzi multzotan banatu dituzte.



## Arbillak eta San Josek 2027ra arte luzatu dute kontratua SD Eibar-ekin, Corpas badoa

**E.B.** Hypermotion Ligan bere ibilbidea amaitu berritan, 2026/27 denboraldirako lanean hasi da SD Eibar. Anaitz Arbilla kapitainak beste urtebetez jarraituko duela jakinarazi ondoren, Beñat San Jose entrenatzaileak ere bere kontratua 2027ra arte luzatu duela jakitera eman du aste honetan.

Arbillak, horrela, 11 urte beteko ditu taldean, 2016an iritsi zelako Eibarrera. Urte hauetan 309 neurketa jokatu ditu talde gorriurdinarekin

eta, 39 urte izan arren, oso garrantzitsua jarraitzen du izaten.

San Jose 2024/25 denboraldian erdian etorri zen Eibarrera, Joseba Etxeberriaren ordean. Lehen denboraldian irudi ona eman zuen eta aurtengoa eskas hasi, jaitsiera postuetatik gertu ibiliz, baina bigarren itzulia historikoa izan da eta ia play-off postuetan sartu du taldea. Jose Corpasek, osterara, taldea lagako du bost denboraldi eta 207 partidaren ondoren.

## Burgosko mendietara joango dira Deporrekook

**E.B.** Obaranes (Burgos) mendietan zehar irteera egingo dute bihar, ekainak 6, Eibarko Klub Deportiboko mendi taldekoek. Orbañanos herrian hasi eta Frias herrian amaituko den ibilbidea egingo dute, eta bidean Humion (1.437 m) mendia egoko dute.

Luzerari dagokionez, bi aukera emango dituzte. Batetik, 20,45 km-ko ibilbidea (goraka metatutako desnibela 1.158 m eta beherakoa 1.242 m); eta bestetik, 14,12 km-koa (goraka metatutako desnibela 896 m eta beherakoa 986 m).

Irteera 7:30ean egingo da Eibartik eta itzulera 18:00 inguruan izango da. Izena emateko, mendia@deporeibar.com helbidera idatzi daiteke.

## Eskubaloien eskolan izena emateko epea gaur arte

**E.B.** Eibar Eskubaloien taldeak bere eskolan izena emateko epea zabaldu zuen maiatzaren 19an, 2017an eta 2018an jaiotakoentzat, eta gaur, ekainak 5, itxiko dute. "Plaza erabilgarriak mugatuta daudenez, eta onarpen-prozesua bidezkoa, objektiboa eta gardena bermatzeko, eskubideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira", klubetik diotenez.

Beraz, hau izango dute kontuan: alde aurretik Eskubaloien Eskolan edo ate irekien jardunaldietan parte hartu izana, 2 puntu; Eibar Eskubaloien klubeko bazkide izatea, puntu 1; eta gaur egun klubean jokatzeko duen anai-arreba bat izatea, 0,5 puntu.

Informazio gehiago behar izanez gero, info@eibareskubaloia.eus helbidera idatzi daiteke.



## Bolari eibartarrek zenbait txapel irabazi dituzte Gipuzkoako Txapelketan

**E.B.** Floreagako bolatokiak 55. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Joku Txapelketaren 10. eta azken jardunaldia jaso zuen zapatu arratsaldean. Emozio handiko eguna izan zen, dena zegoela erabakitzeko. 58 bolarik hartu zuten parte bertan eta eibartarrek oso lan txukuna egin zuten, zenbait txapel irabaziz.

Jardunaldia Lasturreko Jokin Arriabalagak irabazi zuen zazpi txirlorekin. San Migeleko Jabier Osoro izan zen bigarren txirlo kopuru berarekin eta Asola Berriko Arkaitz Rodriguez hirugarren seirekin. Gauzak horrela, sailkapen orokorraren lehen postuetan ez zen aldaketarik izan eta Gorka Madina-beitia aretxabaletarrak lortu du txapela bakarkakoan. Soraluzeko Jabier Martino izan da bigarren eta, gertu izan arren, Asola Berriko Garikoitz Rodriguezek hirugarren amaitu du. Gainera, Elgeta A taldeko Bittor Astigarraga eibartarra laugarren izan da eta Asola Berriko Arkaitz Rodriguez bosgarren. Rodriguez anaiekin jarraituz, Ganixek zortzigarren postuan amaitu du txapelketa.

Emakumezkoek dagokionez, Asola Berriko Enara Montiel izan da ira-

bazlea, Isana Gorosabeli eta Olatz Aranori alde nabarmena ateraz.

Edadekoen sailkapenean, txapela Eibarrera etorri da kasu horretan ere, Bittor Astigarragak jantzi baitu. Eta ez da jantzi duen txapel bakarra, Bittor Ugartebururekin bikotekakoa ere eraman duelako.

Infantiletan ere, txapela Eibarrera etorri da, Ander Unamunoren buruan, hain zuzen ere. Gauzak horrela, eta eibartarren lan ederra ikusita, ez da harritzekoa taldekako sailkapena Asola Berri A-k irabaztea, San Joxepe A eta Elgeta A taldeen aurretik.

### Lehendakari Saria eta omenaldia

Gipuzkoako Txapelketa amaituta, bihar Lehendakari Saria jokatuko da Asola Berriko bolatokian, 12:00etan. Lehiatzeko gain, omenaldiak ere egongo dira. Izan ere, tiraldiaren ondoren, bazkaria egingo dute Ixua jatetxean eta bazkalostean Bittor eta Jose Angel Astigarraga eta Bittor Ugarteburu eibartarrak omenduko dituzte. Ondoren, Gipuzkoako Txapelketako sari banaketa egingo da, boloen egun handia izango den horretan.



## Galdaramiño Igoera egingo da domekan distantzia eta modalitate ezberdinekin

**E.B.** Galdaramiño Igoeraren 16. edizioa jokatu da domekan, ekainak 7. Distantziari dagokionez, probak hiru aukera eskaintzen ditu: 10 km-ko lasterketa, 19 km-koa eta 19 km-ko marxa ez lehiakorra.

Hau izango da ibilbidea: Unbe - Galdaramiño (669 m) - Azurtzagaina (654 m) - Arraotz (anoa postua) - Azkonabitza (726 m) - Bergaretxeko anoa postua (1) - Topinburu (590 m) - Ilordo (541 m) - Berga-

retxeko anoa postua (2) - Unbe.

Azken bi probak Topinburutik igarotzen dira Ilordora iristeko, errota eolikoak jarri nahi dituzten mendilerroan alegia. Gauzak horrela, eta inguruak ezagutzeko aukera ona izango denez, Eibar-ko Mendiak Bizirik plataformak herritarrek lasterketan parte hartzea animatzen ditu, "bai lehiatuz bai korrikalariak animatuz", euren berbetan.

## Bolo-palma txapelketa jokatu da ekainaren 13an Ipuuako bolatokian



**E.B.** Casa Cantabria elkarteak antolatuta, bolo-palma modalitateko 38. Eibar Hiria Txapelketa jokatu da ekainaren 13an, Ipuuako bolatokian.

Lehiaketa 12:00etan hasiko da eta bolo-jokoaren zaleentzako hitzordu garrantzitsua izango da beste urte batez.

Bolo-palma Kantabriako kirolik ezagunenetako bat da, baina urte luzez presentzia izan du Eibarren ere Casa de Cantabriaren eskutik.

## Kontratu berritzeak eta agurrak F Ligako SD Eibar-en

**E.B.** Helburua lortuta eta garaipenarekin esan dio agur denboraldiari F Ligan jokatzeko duen SD Eibar-ek. Ligako azken partidaren 2-1 irabazi zion, domekan, DUX Logroñori eta hurrengo denboraldian maila gorenean jarraituko dute eibartarrek.

Talde armaginak oso positibotzat jo du Iñaki Goikoetxeak egindako lana, taldea berreraikitzeko eta jokalaririk gazteen aldeko apustua egin baitu, eta 2027ra arte luzatu du bere kontratua. "Goikoetxeak talde armaginaren nortasun lehiakorra indartzea lortu du, eta trantsizio prozesu bati jarraipena eman dio, plantillaren berregituraketak markatuta", diote klubetik.

Hurrengo denboraldiari begira, Eibarrek espero du bere jarraipenak hazkunde hori sendotzea eta taldea gero eta zorrotzagoa den F Ligan finkatzen jarraitzea. Horretarako, hainbat erabaki hartu ditu jokalaririk jarraipenari dagokionez.

Alde batetik, hiru jokalaririk kontratua luzatu dute 2027ra arte: Mireia Masegurrek, Sara Martinek eta Adela Ricok.

Eta bestetik, hainbat jokalaririk taldea lagako dutela jakinarazi du Eibarrek: Arene Altonaga kapitainak, Marta Lopez de Gereñu eibartarrak, Patri Ojedak, Laura Caminok, Iara Lacostak, Opah Clementek, Eunate Astralagak, Amaia Iribarrenek, Emma Morenok eta Garazi Facilak.



## Unax Garcia omentzeko txapelketa, bihar, Unben

**E.B.** CD Urkik antolatuta, Unax Garciaen Oroimenezko Haur Futbol Txapelketa jokatu da bihar, Unbeko goiko eta beheko zelaietan. Goizeko 10:00etan hasiko den hitzorduak eskualdeko eta inguruko hainbat taldetako futbolari gazteak bilduko ditu, kirola, laguntasuna eta oroimena uztartuz.

Txapelketan zortzi taldek hartuko dute parte: antolatzailea den CD Urkiz gain, Real Sociedad, Eibartarrak FT, Amaiak Bat, SD Eibar, Sodupe, Santutxu FT eta Aurrera de Vitoria izango dira lehian.

Bestalde, CD Urkik jakinarazi du entrenatzaile bila dabilela hurrengo denboraldiari begira. Beraz, interesa duenak Txusekin harremanetan jarri daiteke 678 39 50 39 telefonoan.



## Urbateko jubenilak Espainiako Txapelketara

**E.B.** Urbat IKE waterpolo taldeko jubenilek 21-8 menderatu zuten WC Logroño asteburuan eta garaipen horri esker 2. Mailako Espainiako Txapelketarako sailkapena lortu dute. "Garaipenak denboraldi bikain bati amaiera ezin hobea eman dio", klubaren berbetan.

Bestalde, kadeteek 21-6 irabazi zioten WP Donostiari; eta eskolar-teko taldeak, ostera, 2-4 galdu zuten WP Donostia Txuriaren aurka.



## Kristina Ruiz bere kategorian gailendu zen sprint modalitateko Mutrikuko Triatlloan

**E.B.** Joan den zapatuan, maiatzak 30, sprint modalitateko Mutrikuko XII. Triatlota jokatu zen eta Eibar Triatlota Taldeko sei kidek hartu zuten parte bertan. 16:10ean hasi zen proba, "oso giro atseginean", 20º-ko giro-tenperaturekin eta uraren 18,7º-ko tenperaturekin.

Atleta eibartarren artean Kristina Ruiz nabarmendu zen, V2F kategorian 1. postua lortuta 1:24:58 denborarekin (sailkapen orokorrean 8. izan zen). Ugaitz Gartzia ere gertu izan zuen garaipena bere kategorian, baina 2. izan zen JNM mailan eta 17. sailkapen orokorrean (1:06:27).

Jokin Amorrostak 1:08:33ko marka egin zuen eta 28. postuan sailkatu zen, 23 urtez azpiko kategorian seigarren postua lortuz. Iñigo Gaston ermuarrak 1:18:08ko denborarekin amaitu zuen proba, sailkapen nagusiko 65. postuan eta 23 urtez azpikoetan hamai-kagarren. Denbora bera egin zuen Roberto Gartzia ere, 77. postua lortuta eta V2 gizonezkoen kategorian bederatzigarren sailkatuta.

Alberto Agirrek osatu zuen taldearen parte-hartzea, 1:42:42ko denborarekin; sailkapen nagusian 98. izan zen eta V3 kategorian bigarren postua eskuratu zuen.

Hurrengo egunean, domekan, Villafranca del Bierzon jokatu zen VII. Bierzo Triaman proba ezagunean ere ordezkari izan zuen taldeak. Jonatan Alustiza aritu zen bertan lehian eta emaitza txukuna eskuratu zuen. 3:35:23ko denborarekin helmugaratu zen, sailkapen nagusiko 47. postuan amaituz.



# “Gerraren basakeriaren aurrean gelditzen zaigun baliabide bakarra osasun-sistema da”

ALBERTO VILLARREAL • Osasun-langileak genozidioaren aurka



Eibar Palestinarekin elkarateak Palestinako historiaren inguruko erakusketa egingo du ekainaren 7tik 13ra, Topalekun, eta 13an, 12:00etan, Alberto Villarrealak ‘Osasuna gerrako arma bezala’ izeneko hitzaldia eskainiko du toki berean. ‘Osasun-langileak genozidioaren aurka – Al-Ahli Arab Taldea’ elkarteko kidea da bera.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

**V**illarreal erizaina da eta, Al-Ahli Arab Taldearen bitartez (Israelek bonbardatutako ospitale baten izena da hori), batez ere osasungintzaren arlotik eskaintzen die laguntza palestinarrei. Izan ere, hori da gizakiaren azken muga, osasun-zerbitzu gabe, ez zaigu ezer geratzen, heriotza bakarrik, eta horrek guztioi eragiten digu.

**‘Osasuna gerrako arma bezala’ izango da zure hitzaldiaren izenburua. Zer esan nahi duzu horrekin?**

2023ko urriaren 7ko gertaeren aurretik, irailean, Palestinan egon ginen, Zisjordanian, Jericoko errefuxiatu-esparruan kolaboratzen. Handik irten ginenean egoera okertzen zihoala ohartu ginen eta, urriaren 7aren ondoren, Al-Ahli ospitalea bonbardatu zutela ikusita, osasun-langile bezala zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Izan ere, ikusten duguna da Israelek osasuna, gosea eta egarria suntsipen handiko arma bezala erabiltzen dituela. Ez dago hiru gauza horiek baino gehiago suntsitzen duen ezer. Gerraren basakeriaren aurrean gelditzen zaigun baliabide bakarra osasun-sistema da. Hori da azken babeslekua, bizitza eta heriotza banatzen dituen gauza bakarra. Hor jaio zen ‘Osasun-langileak



genozidioaren aurka’, baina ez bakarrik Palestinan gertatzen ari denagatik, Libanon ere antzeko zerbait gertatzen ari delako. Munduko toki askotan egiten da osasun-sistemaren aurka zibilak beldurtzeko.

**Ospitaleak bonbardatu dituzte, baina osasun-sistemaren aurkako erasoak haratago doaz, agian ez hain modu ikusgarrian. Horrek arriskutsuago egiten ditu?**

Suntsipen handiko armak dira. Oso ikusgarria da bonbardaketak ikustea, baina benetako mina goseak, egarriak eta gaixotasunek egiten dute. Osasun-sistemak nolabaiteko ongizatea, gaixotasunak prebenitzen laguntzea eta hilkortasuna saihestea eskaini ahal dizkizu. Hiltzaile isila da. Osasun-sistemarik gabe, jendea poliki-poliki hiltzen doa, jendeak ezin duelako behar duena jaso. Gaur egun, ospitaleen suntsipen masiboaren ondoren Palestinan gertatzen ari dena da, ez bakarrik zauriak dituen jendea ezin dela artatua izan, baizik eta



Al-Ahli Arab ospitalea da Israelek bonbardatu dituenetako bat. Gazako osasun-baliabideen % 96 suntsitu du.

bestelako gaixotasunak dituen jendea edo tratamenduak jasotzen zituztenak ere zaindu gabe geratu direla, eta hiltzen joan direla. Gazatarren bizi-itxaropena 75 urtetik 35-40 urtera jaitsi da. Israelek hildako lagunen kopuruak aipatzen ditugu, 35.000 direla eta abar, baina Lancet bezalako argitalpen zientifikoek diote hildakoak 600.000 inguru izango direla. Zifra hori ez da inon agertzen.

#### **Gaur egun, nolako osasun-baliabideak dituzte Gazan?**

Israelek Gazako osasun-baliabideen % 96 suntsitu du, eta ia klinika eta ospitale guztiak izan dira kaltetuak. Berriz altxatzeko aukerarik gabe geratu dira eta zutik daudenez ia ez dute hornikuntza-elektrikorik. Beraz, ezin dituzte euren makinak piztuta eduki. Generadoreen bitartez funtzionatzen dute, baina zaila da. Horniduren sarrera blokeatuta dagoenez, beste ospitaletatik lortutako gauzekin aukera izanda ere, ezin dute operatu. Inkubagailuek, arnagailuek, material elektromedikoen... ez dute funtzionatzen.

#### **Zuen elkarteak eta antzekoak noraino iritsi daitezke laguntza eskaini ahal izateko?**

Gurea oso plataforma txikia da. Euskadi mailan kon-

tzientziazio-lana egiten saiatzen gara eta baliabide-bilketak egiten ditugu UNWRA erakundeari emateko. Euren Gazan bertan egiten dute lan osasun-langileekin eta bertako jendearekin. UNWRA Nazio Batuen Erakundearen agentzia bat da, baina antzeko beste elkarte batzuek (Mugarik Gabeko Medikuek, adibidez) herrialdea laga beharko dute orain, Israelek euren kolaboratzaile eta langile guztien izen-abizenak ematera behartu dituztelako. Arazoa da Gazan ez dela edozein elkarte sartzen, oso zaila da. Adibidez, Zisjordanian guk geuk proiektuak ditugu, baina Gazan inoiz ezin izan gara sartu.

#### **Palestinarrei babesa eskaintzeko ekintzen artean oso ezagunak egin dira flotillak eta zuk zeuk antolakuntzan hartu zenuen parte maitatzean. Nolako esperientzia izan zen?**

‘Gazarako Martxan’ hartu genuen parte, Egipton egin dako ibilaldian, baina atxilotu eta atzera bota gintuzten. Global Summud Flotillari dagokionez, ez ginen joan, baina itsasontziek eraman zituzten osasun-materialak prestatzen lagundu genuen. Flotilla bezalako ekintzak oso garrantzitsuak dira, Gazan gertatzen ari dena

erakusten diotelako munduari. Oso karga sinboliko garrantzitsua dute, eraman daitekeen guztiaz gain. Gainera, palestinarrei laguntza morala adierazten zaie, bakarrik ez daudela sentiaraziz eta eurengatik zerbait egiteko prest dagoen jendea dagoela erakutsiz. **Maiatzeko eta orain dela aste batzuetako flotillak alderatuz, Israelen erantzuna ere aldatu egin dela ikusi da, azkenengoan askoz ere gehiago oldartu zirelako kideen aurka. Zigorgabe sentitzen dira?**

Bai, guztiz. Mundu guztiak ikusten du Israeliek zigorgabetzat ikusten duela bere burua, eta normala da. Nola sentituko zara, egindakoa egin ondoren, errepre-saliarik jaso ez baduzu? Nazioarteko Justizia Gorteak kautelazko neurriak hartu ditu eta derrigorrez bete beharrekoak dira, baina ez dago neurriak betearazteko tresnarik. Hor dago paradoxa. Herrialde batek Israeli militarki aurka egin ezean, ez dago modu hertsatzailerik neurri horiek betearazteko. Flotillako kideekin lehen eta bigarren esperientziaz berbetan, maila kualitatiboan Israeliek beste muga bat pasa duela diote. Torturak, tratu txarrak eta eraso sexualak gertatu dira oraingoan. Bestetik, Israeliek arrazaren arabera erasotu du flotillako jendea. Hau da, europarrek edo estatubatuarrek tratu hobea jaso dute pertsona arrazializatuek baino. Egipton ere antzeko zerbait gertatu zitzaigun. Nire kasuan, zuria eta europarra naiz, eta tratua ez zen txarra izan, baina pertsona arrazializatuek tratu txarrak jaso zituzten.

**Gazan bizi den egoeraren aurrean, noraino eutsi dezakete bertakoek?**

Ez dakit, egia esan. Osasun-baliabiderik gabe, ez da ezer geratzen. Orain, Gazan erabili duten estrategia bera Libanon erabiltzen ari dira. Jendea ahal duen eta lagatzen dioten tokira mugituko da, baina ez dakit noraino eutsi dezaketen, horrela bizirautea ez delako posible. Bonbardaketak gertatzen zirenean, batzuek hiltzea eskatzen dute ezin dutelako gehiago aguantatu. Etsi egin behar duzu bizi nahi izanez gero. Ez dakit Gazak nolako etorkizuna duen Israeliek presio horrekin jarraitzen badu. Orain hedabideetan ez dugu ikusten,



baina Israeliek erasoak egiten jarraitzen du eta uste dut ez dugula berriz ikusiko lehengo Gaza.

**Hemendik inpotentziaz eta amorruz begiratzen diogu Palestinan gertatzen denari. Zer egin dezakegu horren aurrean?**

Hasteko, ezin dugu Palestina ahaztu eta ezin dugu hau zigorrik gabe laga, epaitua izan behar da. Nire iritziz, maila kualitatiboan, Israeliek naziek egindako krimenak gainditu ditu. Naziek krimen ikaragarriak egin zituzten, baina Nurenbergeko auzien ondoren eta abar, gaur egun arauak eta legeak ditugu, Nazioarteko Eskubidea bateratu zen eta orain badakigu zer egin daitekeen eta zer ez. Argi dago zer diren genozidio delitua, gizate-riaren aurkako delitua eta gerra-krimenak. Israeliek Nazioarteko Eskubideak urratu ditu. Horren aurrean, hemen, kaleko presioarekin jarraitu behar dugu, gure ordezkari politikoei Palestinaren alde lan egiteko esan, ezin da Israel zurutu gure enpresen bitartez (CAF jar-tzen da adibide bezala, baina beste askok saltzen die materiala, baita material belikoa ere), ezta kirol eta kultura ekitaldietan ere (Euskal Herriak solidaritate mezu garrantzitsua igorri zuen iazko Vueltan)... Ezin diogu utzi Palestina laguntzeari.



## Yogari buruzko liburua aurkeztuko dute martitzenean

**S.H.** Cristina Alvarez Esparzak *Escuela de la Tierra* bere liburuaren aurkezpena egingo du martitzenean (ekainak 9), 19:00etan Portaleko areto nagusian. Bizitzaz eta heriotzaz, maitasunaz eta ausardiak hitz egiten du liburuak, dena nahastuta kontatzeko: garai historikoak, munduko bazterrak eta eguneroko esperientzia oso hurbilak. Lan honen egilea Gizarte Hezkuntzan diplomatua, Filologian lizentziatua (UD Saria) eta Zinpeko Interpretea (MAE) da; komunikazioan eta sorkuntzan espezializatua, helduentzako antzezlan eta ipuin ugariaren egilea, eta Sanadhar Teatroko zuzendaria ere bada. Baina, batez ere, yoga irakaslea da bera, eta bere ezagutza eta esperientzia hainbat talde eta kontzientzia-gunetan partekatzen ditu. Liburuaren salmentari esker-lortzen duen dirua Sanatana Dharma irabazi asmorik gabeko elkartearentzat eta Sunu Buga Buga Creciendo en Gambia GKE-arentzat izango da. Eibarko Udal Liburutegiak antolatuta du ekitaldia. eta sarrera libre izango da.

## Ikasturte amaierako erakusketa

**S.H.** Atzo inauguratu zuten ikasturte amaierako erakusketa Eibarko Zeramika eta Dibujoko Udal Eskoletako ikasleek, Portalean. Oraingo honetan bi udal eskoletako ikasle guztiak elkarrekin aritu dira, natura gaitzat hartuta instalazio bat sortzeko. Ohiko ordutegian zabalduko dute, eta ekainaren 19ra arte egingo da ikusgai.



## JHH-k antolatu dituen bazkarietarako tiketak salgai

**S.H.** Sanjuanetako Gazte Egunean, ekainaren 23an, egingo den herri bazkarirako bigarren tiket salmenta iragarri du Jaixak Herrixak Herrixandako (JHH) jai batzordeak: gaur arratsaldean, 20:00etan jarriko dute salmenta postua Untzagan. Antolatzailak jakinarazi dutenez, ordainketa eskudirutan egin beharko da. Bestetik, bazkarirako tiketa erosten duenak jaietarako kamiseta ere jasoko du eta, horrez gain, txosnetan lanean aritzeko txanda bat hartu beharko du. Antolatzailak gogorarazi dutenez, “ez da magia, herri lana da!”.

Eta ekainaren 24rako, berriz, Umeen Eguna antolatu du JHH-k. Iaz bezala, txosnagunean ospatuko dute, eta egunerako egitaraua ere prest dago: kamisetabanaketa, tailerra, hamaiketakoa, jolasak, bazkaria, Potx pailazoaren ikuskizuna eta musika. Egun horretarako tiketak 10 euro balio du (kamiseta, edalontzia eta bazkaria), eta Triku tabernan zein Eibarko Klub Deportiboaren bulegoan (arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara) ipini dituzte salgai. Erosteke azken eguna ekainaren 12a izango da.

## Maroko eta euskal kulturaren arteko topaketa gastronomikoa

**S.H.** Gazte Safa elkarteak msemen izeneko ogi edo opil tradizional marokorak egingen ikasteko tailerra antolatu du gaurko (ekainak 5, barixakua), Marokoko eta Euskal Herriko kulturak gastronomiaren bidez hurbiltzeko asmoz. Portalean izango da, 17:00etan. Izena emateko 631 33 02 18 telefono zenbakira deitu edo gaztesafa@gmail.com helbidera idatzi daiteke.





## ‘Eibarko iragana iruditan’ ikusteko azken eguna da gaur

**S.H.** Aurreko barixakuan inauguratu zuten *Eibarko iragana iruditan* erakusketa ikusteko azken eguna da gaur (barixakua, ekainak 5). Untzaga gizarte zentzoko Jose Airas aretoan dago ikusgai, eta Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleen 21. promozioiko ikasleek prestatu dute, ikasturte amaierako proiektu gisa. Kurtsoan zehar lanean aritu eta gero, Angel Guenaga artistaren koadroak eta Eibarko antzinako argazkiak bikoteka antolatatu dituzte, bisitan doazenek gure herria nola aldatu den ikusi ahal izateko. Oraindik ikusi ez duenak gaur dauka azken aukera, 19:00etatik 21:00etara, ondoren atekak itxiko ditu eta.



## ‘Brokeback Mountain’ filmari buruzko zine-forum saioa

**S.H.** Datorren barixakuan, ekainaren 12an egingo da Pagatxa emakume elkarteak hilero antolatzen duen zine-forum feministaren saioa, 18:30ean, Portaleko areto nagusian. Hil honetako saiorako aukeratu duten filma Ang Lee zuzendariaren *Brokeback Mountain* da. Bi cowboyren arteko maitasun istorioa kontatzen duen filma ikusi eta, jarraian, horri buruzko solasaldia hasiko da. Sarrera libre eta doakoa izango da.



## Datorren barixakuan ospatuko da Dantzari Eguna

**S.H.** Ikasturte honetan Kezka taldearen Dantza Eskolan aritu direnek ekainaren 12an, barixakuan erakutsiko dituzte kurtsoan ikasitako dantzak, Kezka Dantza Taldeak eta Eibarko Klub Deportiboak antolatutako Dantzari Egunean. Ikasturtea agurtzeko urtero egiten duten euskal dantzen erakustaldia Untzaga plazan izango da, 19:30ean. Horren harira, Kezka Dantza Taldeak kudeatzen duten Dantza Eskolan 2026-2027an jarduteko izen-ematea zabalik dagoela gogora ekarri dute, nagusientzat zein haurrentzat (2022ean jaiotakoetatik aurrera). Izena emateko kezka@dantzan.com helbidera idatzi behar da, ikaslearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta jaiotze-data adieraziz (nagusien kasuan aukeraturako ordutegia ere zehaztu beharko da), gero harremanetan jarri ahal izateko. Informazio gehiago eskuratzeko, aipaturako helbide elektronikora mezua bidali ala, nahiago izanez gero, 605711429 telefono zenbakira idatzi daiteke.

## Poesia eta musikari eskainitako gaua Ibarkurutzeko iturrian

**S.H.** Bihar arratsaldean izango da Maite Lorenzoren eskuetik urtero sanjuanak aurretik egiten den Poesia eta Musika Gaua, Ibarkurutzeko iturriaren inguruan (euria egingo balu, Errebal Plazan egingo litzateke). Aurtengoa 13. edizioa izango da eta, betiko martxan, Eibarko zein beste herri batzuetako poeten errezitaldiak eta zuzeneko musika tartekatuko dira pare bat orduz, 19:00etatik 21:00etara.



ERRAZA

7	1		6					
9				4	8			
	6			1	5			7
	8	6			2			4
5			3			2	8	
6			1	2			4	
		9	5					3
					7		5	1

**SUDOKUA**

9	7	6	7	4	8	2	3	1
5	8	2	9	5	6	1	4	7
3	7	1	2	3	8	9	4	6
8	4	6	2	4	9	5	7	1
6	8	2	1	3	5	7	4	9
5	9	3	7	1	8	2	6	4
4	2	8	7	1	3	6	5	9
7	4	6	5	2	1	7	4	3
8	6	9	5	2	1	7	4	3
6	3	2	1	5	4	8	1	6
9	2	5	7	3	4	8	1	6
1	6	8	9	5	3	2	7	4

3	5	7	8	1	9	2	4	6
9	2	8	6	9	6	7	4	3
1	4	6	2	5	3	9	8	7
2	9	3	1	4	5	7	6	8
5	7	4	3	8	6	1	9	2
8	6	1	9	2	7	5	3	4
7	3	2	5	6	8	4	1	9
6	1	5	4	9	2	8	7	3
4	8	9	7	3	1	6	2	5


ZAILA

				1				5
			4		2	8		
7				6			1	9
			9	2			3	
5	7						9	2
	9			4	5			
1	4			5				7
		8	6		4			
3			8					

**LETRA-ZOPA**

D	A	P	O	R	H	K	F	A	L
R	F	A	K	T	U	R	A	T	D
B	T	S	U	N	T	A	R	X	E
U	E	A	L	B	B	K	M	I	N
L	T	H	A	D	N	P	A	R	D
E	G	I	T	U	R	A	I	R	A
G	O	T	U	Z	T	M	R	I	T
O	B	Z	E	R	U	A	U	N	Z
A	Z	A	L	O	R	E	A	A	U

- BULEGOA
- DENDA
- TXIRRINA
- FAKTURA
- EGITURA
- AZALOREA
- PASAHITZA
- ZERUA
- ARMAIRUA



# Ekainak 5 - Ekainak 11

## BARIXAKUA 5

### GASTRONOMIA

**17:00** Maroko eta euskal kulturaren arteko topaketa gastronomikoa, Gazte Saffaren eskutik. Portalea (3. pisua).

### PRENTSAURREKOA

**19:00** Eibarko Gaztetxiaren hustuketari buruzko azalpenak emateko agerraldia, Gazte Asanbladaren eskutik. Untzaga.

### DANTZA

**19:30** Eibarko Dantza Eskolaren ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

### SANJUANAK

**20:00** Jaixak Herrixak Herrixandakok ekainaren 23rako antolatuta duen herri-bazkarirako tiketen salmenta. Untzaga.

### URKIKO JAIAK

**19:00** Jaien hasiera eta txupinazioa, Urkipe elkarte gastronomikoaren eskutik, 50. urteurrena ospatzeko. **19:00/21:00** Karaoke ibiltaria, Mireng taldearen eskutik, auzoko kale eta tabernetan zehar. **19:15** Koa Dantzaren erakustaldia, plazako eszenatikian. **22:00** Kontzertuak: LordWitch, Rythmachin eta Urkari. Urki auzoa.

### SAGUZARREN GAUA

**21:00** Aurkezpena eta ibilbide laburra, Eibarko Baso Biziak-en eskutik. Estixa (Arraterako bideko parkea).

## ZAPATUA 6

### URTEURREN-JAIA

**10:00** Bali Games, Bali eta Ipar surf/skate eskolaren

5. urteurrena ospatzeko. **13:00** Luntxa+sari banaketa+musika (Ipar). **16:00** Skate eta roller ate-irekiak (Ipar). **17:30** Skate eta roller erakustaldia (Ipar). **19:30** Skate libre+DJ-ak (Ipar). **19:30/22:00** Poteoa (Untzaga). **22:00** Afaria (Arkupe taberna).

### URKIKO JAIAK

**11:00** Txikikrosa (2-12 urte bitarteko haurrak), Urki Kurutzekuatik abiatuta (ortsalen banaketa 10:30ean izango da). Ondoren, herri kirolak. **12:00** Paella lehiaketa, Nuevo tabernaren atzeko aldean (euria eginez gero, eskolako patio estalian). **17:00** Toka eta igel-toka txapelketa, Rioja tabernako parkean. **17:30/19:30** Haurrentzako jolasgunea eta txokolat-jana, eskolako patioan, Ludoteka Kids & Party-ren eskutik. **19:30/21:30** Dinbi Banda batukada kalez-kale ibiliko da, eskolatik hasita. **23:00** Kontzertua, Estopaos taldearen eskutik (Estopa-ren omenaldi-taldea). Urki auzoa.

### MINBIZIAREN AURKA

**11:00** Minbiziaren Aurka Eibarren 5. Martxa. Untzaga.

### TOPAKETAK

**11:00** Guatemala-Euskal Herria Eskola politiko feministen Topaketa. Errebal Plazia.

### DANTZA

**19:30** Eibarko Dantza Eskolaren ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

### POESIA

**19:00** 13. Poesia eta musika gaua, Maite Lorenzoren zuzendaritzapean. Ibarburuzeko iturria (euria egingo balu, Errebalen).

## DOMEKA 7

### URKIKO JAIAK

**09:30** Galdaramiñora igotera, Unbetik abiatuta. **13:00** Sari-banaketa ekitaldia, zozketa eta jaien amaiera. Urki auzoa.

### INAUGURAZIOA

**12:00** Palestinari buruzko erakusketaren inaugurazioa eta mokadutxoak. Topaleku.

## MARTITZENA 9

### HITZALDIA

**18:00** "Sexualitatea eta aniztasun funtzionala", AndretxeaSex zerbitzuaren eskutik. Elebitan. Sarrera libre. Andretxea.

### HERRITU

**18:30/19:30** Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

### LIBURU-AURKEZPENA

**19:00** Cristina Alvarez Esparak "Escuela de la Tierra" bere liburua aurkeztuko du. Portalea (areto nagusia).

## EGUAZTENA 10

### AURKEZPENA

**19:00** "100 urte bizikletan", Eibarko Txirrindulari Elkarteen mendeurrenaren aurkezpena. Coliseo.

### DANBORRADA

**19:15** Sanjuanetako danborradarako entsegua (haurrak). **20:15** Helduen entsegua. Errebal Plazia (eraikin barruko lokaletan).

## EGUENA 11

### MUSIKA

**17:30** Arima Disko Festa, DJ Mitxelen eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, Berbetan egitasmoa agurtzeko. Sarrera libre. Errebal Plazia.

### MUSIKA

**19:00** Eibarko Musika Eskolako taldeen kontzertua (haurrak). Untzaga.

### DANTZA

**20:00** KOA Dantzaren ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

### Ekainaren 5era arte

**Eibarko iragana iruditan.** Angel Guenaga margolariaren begirada, antziniako argazkiekin jolasean", **Esperientzia Eskolako 21. promozioiko ikasleen proiektua.** Untzaga Gizarte Etxea.

### Ekainaren 10era arte

**"Sexilioa: Euskal landa-eremuko LGTBQ+ komunitatearen bizi-esperientziak" argazki erakusketa.** Andretxea.

### Ekainaren 16ra arte

**Eibarko Udal Zeramika eta Dibujo Eskoletako ikasleen lanak.** Portalea.

### Ekainaren 7tik 13ra

**Palestinari buruzko erakusketa, Eibar Palestinarekin herri ekimenak antolatuta.** Topaleku.

## ZINEA COLISEO



**"He-Man y los Masters del Universo"**  
AKZIOA.ABENTURAK

2026/AEB/132'  
Zuzendaria: Travis Knight.  
Aktoreak: Nicholas Galitzine,  
Camila Mendes, Idris Elba.  
Erdi Aroko fantasia. Magia

**1 ARETOA**

• **7an:** 17:00

**ANTZOKIA**

• **7an:** 20:00

• **8an:** 19:30



**"Love me tender"**  
DRAMA

2025/Frantzia/134'  
Zuzendaria: Anna Cazenave  
Cambet  
Aktoreak: Vicky Krieps, Antoine  
Reinartz, Monia Chokri.  
Amatasuna. Homosexualitatea.  
Aitatasuna

**1 ARETOA**

• **7an:** 20:00

• **8an:** 19:30



**"La silla"**  
THRILLERRA

2026/Espainia/76'  
Zuzendaria: Ángel de la Cruz.  
Aktoreak: Jaime Lorente,  
Christina Ochoa, Estibaliz Veiga.  
Bahiketak/Desagertzeak.  
Familia

**2 ARETOA**

• **7an:** 17:00, 20:00

• **8an:** 19:30



**"Saliendo del nido"**  
ANIMAZIOA.ABENTURAK

2025/Tailandia/85'  
Zuzendaria: Andrew Gordon,  
Arturo A. Hernandez, Jinanavin  
Veerapatra, Jeff Schu  
Animaliak

**ANTZOKIA**

• **7an:** 17:00

<p><b>FUNEUSKADI</b> Grupo Adistea</p>	<p><b>FUNERARIA MUGICA</b> Funerariak</p>
<p><b>TANATORIO EIBAR</b></p>	<p><b>TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR</b></p>
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

## Iñaki Galparsoro Garcia

**13. URTEURRENA**  
2013/06/05

**13 URTE**  
**IÑAKI GABE**

**"Gure bihotzetan jarraitzen duzu"**  
- ZURE FAMILIA -

943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **LEA!**  
Ekainaren 3an  
2 urte bete dozuz  
eta. Asko maite  
zaittugu!



Zorionak **PABLO!**  
Ekainaren 6an  
2 urte! Musu erral-  
doia famelixaren  
eta, bereziki, Jolen  
partez.



Zorionak **MARKEL!**  
Eguaztenian 4 urte  
egin zenduazten  
eta. Asko maite  
zaittugu!



Zorionak **MIRARI!**  
Atzo 4 urte bete  
zenduazten. Eskerrik  
asko etxia maitasu-  
nez eta alaitasunez  
betetziagatik. Maite  
zaittugu, txikitxuli!



Zorionak **MAIALEN!**  
Ekainaren 7xan  
10 urte beteko  
duzuz eta. Markel  
lehengusua, Aitana  
lehengusiña eta  
famelixa osuaren  
partez.



Zorionak **ARALE!**  
Gaur 3 urte bete-  
tzen dozuz eta. Ja-  
rraittu hain alai eta  
maitagarri. Patxo  
haundi bat Aitz eta  
etxekuen partez.



Zorionak amatxo/  
amatxi **LORE!** Zer  
egingo genduan zu  
barik... Alaitasuna  
bestarik ez deskuzu  
emoten, guk bai  
suertia!



Zorionak **JULIA!**  
Hillaren 9xan bi urte  
beteko dozuz eta.  
Etxekuen partez.



Zorionak **IHNAR!**  
Hillaren 10ian  
4 urte beteko dozuz.  
Musu erraldoi bat  
famelixa guztixaren  
partez.



Zorionak **LUCIA** eta **JULEN**  
gure etxeko txikientzat. Julenek  
4 urte bete zituen maiatzaren 23an  
eta Luciari 6 urte beteko dittu ekaina-  
ren 1ean. Musu erraldoi bana! Asko  
maite zaittuegu.



## Nuria Olmedo Nazabal

Hilabete gure  
ondotik joan  
zinela, beti gure  
bihotzean

- ZURE FAMILIA -





## Alfonso Rodriguez Fernandez

**9. URTEURRENA**  
2017/06/10

"Lagun on bat aurkitzea  
oso zaila da, galtzea  
hainbat zailagoa, eta  
ahaztea ezinezkoa"

- ZURE LAGUNAK -



# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Deba. Emakume nagusia pisu bila uztaila edo abuzturako. 665 72 9417
- Benidorm. Udarako zein negurako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Kanpoko nahiz barruko igerilekua. Gara-jea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.

## 4. LANA

### 4.1 Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 688740201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 643579693.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 15:00etatik aurrera. 614087578.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile izateko. Esperientziarekin eta tituluarekin. 602893569.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko, baita asteburuetan ere. Ziurtagiri soziosanitarioa. 632624579. Karina.
- Mutil gaztea eskaintzen da edozein lan motarako. Garbiketa lanetarako, ileapaindegietan lan egiteko edota eraikuntzan lan egiteko. 632721342.

- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko, pertsonak zaintzeko edota tabernan lan egiteko. 631020887.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 633597550.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka, ospitale edota etxeetan. Baita garbiketa lanetarako ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292.

## 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da pertsona nagusi bat gauetan zaindu eta laguntzeko, paperak eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. Esperientzia baloratuko da. 618156833.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertsitate ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko edo klase partikularrak emateko 688605585.
- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika,

Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Behin erabiltako Magasa emakumezko baserriar jantzia salgai prezio erdian. 14 neurria. 658714437.

### 6.4. Bestelakoak

- Dokumentu pertsonalak aurkitu dira Coliseo inguruetan. Berreskuratzeako deitu hona 690311429.

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA



**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.theleceer.com

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
info@cristaleriaacha.com eta faxa:  
943 203 903

## AROTZAK



**ulmar**  
S.L.  
metalczko  
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko  
**AROTZEGIA**  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK



**IÑAKI**  
pinturak eta lurrak  
Tel. 647 902 208  
Bidebarrieta, 21 - behea

## GARBIKETAK



**Garbihome**

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal  
eta komunitateetarako garbiketa  
zerbitzuak eskaintzen ditugu

☎ 642 456 472  
✉ info@garbihome.com  
🌐 garbihome.com

# Bueltan dira Kiaren 10 egunak

Ekainaren 4tik 15era

14.800 €\* -tik  
finantzatuta



OFFICIAL PARTNER



Uda badator. Planak, mugitzeko gogoia, bidaiatzeko gogoia... Eta, zorionez, Kiaren 10 Egunak ere bueltan dira. Ekainaren 4tik 15era, eskaintza ezin hobek izango dituzu zure Kia kontzesionarioan. Horrela, zure Kia gogokoena estreinatu ahal izango duzu eta ez duzu planik galduko. Aprobetxatu, zure momentua da.

**KIA**  
NAIA CAR

Apalategi, 1 EIBAR

943 70 70 33

[gruponaiacar.com](http://gruponaiacar.com)

**WLTP isurketa konbinatuak (g/km): 102-177. WLTP kontsumo konbinatua (l/100km): 4,5-7,8.\*** PSP Kia Picanto 1.0 DPI Concept (zergak, garraioa eta sustapen-ekintzak barne). Ez dira sartzen gestoriako eta matrikulazioko gastuak. Erabilitako ibilgailu bat entregatu eta Banco Cetelem SAUrekin Flexiplan kanpainaren bidez finantzatzen duten bezero partikularrei aplikatu beharreko eskaintza. Finantzatuko den gutxieneko zenbatekoa 7.000 €-tik gorakoa edo finantzaketa-kontratua amaitzean ibilgailuak etorkizunean izango duen balio berrmatutik gorakoa izango da, eta gutxieneko epea 37 hilabetekoa izango da. Eskaintzahau ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin, eta 2026/06/15era arte balio du. Kontsultatu eskaintzaren baldintzak [www.kia.com](http://www.kia.com) webgunean.

